

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Zuzenbide Fakultatea
Facultad de Derecho

**DATU PERTSONALEN
BABESERAKO OINARRIZKO
ESKUBIDEA EUROPAR
BATASUNEN JUSTIZIA
AUZITEGIAREN
JURISPRUDENTZIAN (Lisboako
Erreformaren ostean)**

Zuzenbide Gradua (2019-2023)

Egilea: Unai Delgado Aranburu

Zuzendaria: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ESKUBIDEA ETA ARAUDIA	5
a. Zer da?.....	5
b. Oinarrizko Eskubidea.....	8
c. Araudia.....	13
i. Jatorrizko Zuzenbidea.....	13
ii. Zuzenbide Eratorria.....	15
1. Europar Batasunean.....	15
a. Datu Babesa eremu orokorrean barne hartzen duen EBren araudia.....	15
b. Komunikazio Elektronikoetan datu babesari buruzko EBren araudia.....	21
c. Datuen Babesari eragiten dion Zibersegurtasunari buruzko EBren araudia.....	22
d. Datuen Babesari eragiten dion Adimen Artifizialari buruzko EBren araudia.....	22
2. Estatu Mailan.....	23
3. EUOPAR BATASUNAREN JUSTIZIA AUZITEGIAREN JURISPRUDENTZIA GARRANTZITSUENAK	25
a. Eremu Orokorra (2016/679 DBEO).....	26
b. Alderdi Penala-Poliziala (2016/680 Zuzentaraua).....	38
c. Bidaiarien PNR datuen erregistroa (2016/681 Zuzentaraua).....	42
d. Datu Babesa Komunikazio Elektroniko arloan.....	45
4. ONDORIOAK	51
5. BIBLIOGRAFIA	56
a. Doktrina.....	56
b. Araudia eta Jurisprudenzia.....	59

Laburpena

Datu babesak gure egunerokoan duen garrantzia erabatekoa da, eta eremu digital honek gure gizartean izaten ari duen garapena geroz eta handiagoa eta azkarragoa da. Honela ikus dezakegu gure araudietan, non datu babesaren erabilera edo tratamendua nabarmen handitu denez eta eremu pertsonalak ukitzen dituzenez, babes gehiago behar duen (datu babesak barne hartzen dituen esparru ezberdinak arautzeko ahaleginak eginez). Horregatik, lan honen lehenengo urratsa EBren lurralde eremuan datu babesaren esparruak barne hartzen dituen eremu nagusien araudiak (historikoa eta gaur egungoa) azaltzea izango da, hurrengo atalaren asmoa zentzu batean testuinguruan jartzeko. Bigarren urratsari dagokionez, lanaren muina edo helburua da. Bigarren atal honetan, Lisboako Erreforma ostean gai honen inguruan eragin nabarmena izan duten EBJAk emandako epai garrantzitsuenak aztertu ditugu, azken organo juridikzional honek ebatzitako erabakiak datu babesaren esparruan izandako ondorio, irismen eta garrantzi nabarmenez ohartu edo kontzientziazteko.

Laburdurak

KA: Konstituzio Auzitegia

EK: Espainiako Konstituzioa

EB: Europar Batasuna

EBOEG: Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna

GEEH: Giza Eskubideen Europako Hitzarmena

EBT: Europar Batasunaren Tratatuak

EBFT: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak

GEEA: Giza Eskubideen Europako Auzitegia

DBEA: Datuak Babesteko Espainiako Agentzia

DBEO: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra

PNR: Bidaiarien Izenen Erregistroa (Passenger Name Record)

AEB: Amerikako Estatu Batuak

EBJA: Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

1. SARRERA

Teknologiak gure gizartean eta bereziki gure egunerokoan eragin nabarmena du, eta argiaren abiaduran berritzen eta garatzen ari da. Egoera honek, gure gizarteak nolabaiteko eboluzio bat izatea ere ekartzen du, eboluzio teknologiko bat, egoera sozial eta ekonomiko batetik begiratuta. Egun, ezin dugu teknologiarik gabeko bizitzarik imaginatu, edozer gauza egiteko beharrezkoa dugulako eta gutxinaka gure bizitzaren zutabe bat bihurtu delako.

Teknologiak gure egunerokoan ohikoki egiten ditugun jarduerak aldatzea ekarri du, besteak beste, beste pertsonekin erlazionatzeko modua, enprekin harremanetan jartzeko modua, lan egiteko modua, gure beharrak asetzeko ondasun eta zerbitzuak kontsumitzeko modua... Gainera, COVID-19aren pandemia dela eta izandako egoerak, oraindik eragin gehiago izan du gure gizartearen digitalizazio prozesuan (teknologiaren aurrerapen azkarrean). Egoera honek, gure gizartearen eredu berri honen alde onak eta alde txarrak azaleratu ditu.

Egia da teknologia berriek izugarritzko abantailak ekartzen dizkigutela, gure egunerokoan beharrezkoak ditugun jarduerak erraztasun handiz aurrera eramatea eraginez, baina tresna guztiek bezala, teknologiak ere baditu bere alde txarrak. Gaur egun, pertsona askok baliabide hauek erabiltzen dituzte beste batzuei kalte egiteko, maula egiteko, hainbat informazio pertsonal eskuratzeko... horregatik, zutabe honetan oso beharrezkoa dugu erregulazio bat, bereziki honelako gertaerak ekiditeko eta teknologia berri hauen erabilera baketsua bermatzeko. Hau da, honelako egoerek, datu pertsonalen erabilera edo tratamendua gero eta handiagoa izatea eragin dutenez, orduan eta babes gehiago behar du esparru honek, eta beraz, Lisboako Erreformaren ondorioz sortutako eremu ezberdinak babestu egin behar dira.

Aldaketa guzti hauek, egoera sozial berri honek dituen abantailak eta arriskuak erregularizatzeko beharra ekarri dute, marko juridiko eta etiko sendo baten premiazko beharra. Honela, herritarrak egoera honen aurrean dituzten eskubideak zeintzuk diren jakiteko eta beharrezkoa den tratamendu egokiarekin babesteko, egungo eskubideen, eskubide digitalen eta eskubide eratorrien artean oreka lortuz. Beraz, gaur egun bizi dugun iraultza teknologikora egokitzeke, babes gehiago behar dugu datu babesaren eremuan.

Honekin jarraituz, Gradu Amaierako Lan honetan, hiritar guztiei dagokigun datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideari buruzko azterketa bat egingo dugu, Lisboako Erreformaren ostean (2007-2009) Europar Batasunaren mailan dagoen ikuspegia azalduz.

Horretarako, lehenik eta behin, datu pertsonalen babeserako eskubideak barne hartzen dituen eremuak eta sortu zenetik gaur egun arte izandako ibilbidea aztertuko ditugu.

Bigarrenik, Europar Batasunaren mailan datu babesari buruz dagoen erregulazioa aztertuko dugu. Datu babesaren esparru guztiak aztertuko ditugu, baina lan honetan, bereziki, datu babesa eremu orokorrean barne hartzen duen EBren araudian jarriko dugu arreta (estatu-mailan dugun araudia ere ukituz).

Azkenik, Europar Batasunaren Justizia Auzitegiak Lisboako Erreformaren ostean datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideari buruz emandako epai nagusienak (jurisprudenzia garrantzitsuena) banan-banan sakonki analizatuko ditugu, datu gai honen eremuan alderdi ezberdinak arakatzuz.

Gradu Amaierako Lan honen helburuetako bat, datu pertsonalen babeserako eskubideak gaur egun gure egunerokoan duen presentzia azpimarratzea da, nonahiko izaera duen mugimendu honek sortutako eskubidearen eremu nabarmenak aztertzea. Baina helburu garrantzitsuena, EBJAk emandako epaiek EBren mailan, Espainia mailan eta batez ere gure egunerokoan duten eragina azpimarratzea da, azken hauek araudietan sortu ditzaketan aldaketak azalduz.

2. DATU BABESA EUROPAR BATASUNEAN LISBOAKO ERREFORMAREN OSTEAN

2. a) Zer da?

Gaur egun interkonektatzeko ditugun aukerak eta edozein informazio ia berehala eskuratzeko ditugun erraztasunak, aro digitalean datu pertsonalen tratamendua bereziki konplexua izatea eragiten dute.

Digitalizazioak ere alderdi judizialean eragin nabarmena izan du, emandako epaien indexazioak¹ eta bilaketa-motorrek, informazio hori edonoren eskuetara irits daitekeela eragin duelako, zeina, duela gutxi arte, zuzenbideko profesionalek eta kazetariak soilik kontsultatzen zuten. Gainera, sistema demokratikoaren eskakizuna epaien ebazpenen publizitatea denez, tratamenduaren egokitasuna zehazterakoan kontuan hartu beharreko aldagaiak biderkatu egiten dira, eta ondorioz, tentsioa sortzen da datu pertsonalak babesteko eskubidearen eta sistema judizialaren sinesgarritasunaren artean.²

Egoera honi aurre egiteko, datu pertsonalak babesteko eskubidea zer den eta azken honek barne hartzen dituen eremuak aztertuko ditugu;

Lehenik eta behin, izaera pertsonaleko datuei buruz hitz egitean, elementu honek zein informazio barne hartzen duen jakitea komeni da. Datu pertsonalen definizioak, identifikatutako edo identifika daitekeen pertsona fisiko bati buruzko informazio guztia barne hartzen du. Informazio hori identifikatutako edo identifika daitekeen pertsonarekin lotuta badago, datu pertsonalak kontsideratzen dira.³

Izaera pertsonaleko datuak ez dira soilik izen-abizenetara mugatzen, zerrenda zabal eta ireki bat osatzen dute, geroz eta luzeagoa dena, besteak beste, gure ahotsa, gure DNA, gure ibiltzeko modua, gure helbidea, Gizarte Segurantzako zenbakia, gure datu ekonomikoak... baita Facebook, Instagram edo antzeko sare sozialetan ematen ditugun "like"-ak ere.⁴ Hau da, edozein datu mota barne hartzen ditu, beti ere, datu horiek hirugarrenek ezagutu edo erabiltzeak bakoitzaren eskubideei eragin

¹ Rae ("Indexazioa"): Datuak eta informazioak orden bat jarraituz erregistratzea, aurkibide bat egiteko.

² JOVE VILLARES, Daniel, "Justicia y Animación de datos personales. Un reto para la digitalización de la Justicia en la era tecnológica.", *Teoría y Realidad Constitucional*, Nº50, 2022, p. 679.

³ CARAZO LIÉBANA, María José, *El Derecho a la Protección de Datos*, Juruá (Porto, 2021), p. 20.

⁴ GIL GONZÁLEZ, Elena, *Big Data, Privacidad y Protección de Datos*, Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado (Madrid, 2016), p. 45.

badiezaieke.⁵ Gainera, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, eskubide honek babesten dituen datuak bizitza pribatuari buruzkoak soilik ez direla zehaztu du, baizik eta pertsonaren bizitza publikoari buruzko beste edozein datu ere barne biltzen dituela, beti ere, pertsonaren nortasunaren garapenari eragiten badio.⁶ Era berean, datuen kategoria bereziak ere daude, zeinetan osasunari buruzko datuez gain, jatorri etnikoa, iritzi politikoa, sinesmen erlijioso edo fisiologikoak, sindikatu-afiliazioa... adieraz daitezkeen, bai eta datu genetiko, biometriko eta bizitza edo orientazio sexualari buruzko datuak ere.⁷

Bigarrenik, pertsona fisikoa nola identifikatu daitekeen jakin behar da. Horretarako, datuen tratamenduaren arduradunak edo beste pertsona batek, pertsona fisikoa zuzenean edo zeharka identifikatzeko erabil daitezkeen arazoizko bitarteko guztiak kontuan hartu beharko ditu. Pertsona bat identifikatu daiteke, bere identitatea (zuzenean edo zeharka) bere nortasun fisiko, fisiologiko, psikiko, ekonomiko, kultural edo sozialari buruzko informazioaren bidez zehaztu daitekeenean. Salbu, identifikazio horrek neurritz kanpoko jarduerak edo epeak errekeritzen dituenean.⁸

Beraz, pertsona hori identifikatzea namarbena da datu pertsonalei buruz hitz egiten ari garenean.⁹

Hirugarrenik, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 8. artikulua arabera, pertsona batek datu pertsonalen tratamenduari dagokionez duen babes-eskubidea, bizitza pribatua eta familiakoa, bizilekua eta gutuneria errespetatzeko eskubidearen parte da.

Honekin jarraituz, aipatzekoa da bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea, nahiz eta erlazionatuta dauden, eskubide desberdinak direla.

Datu pertsonalen babesa, Europan, 1970eko hamarkadan hasi zen, botere publikoek eta enpresa handiek datu pertsonalen tratamendua kontrolatzeko legeria ezarri zutenean. Orduan, datuak babesteko tresnak ezarri ziren Europa mailan, eta urteen

⁵ MOLINA HERMOSILLA, Olimpia, "Inteligencia Artificial, Big Data y derecho a la protección de datos de las personas trabajadoras", *Estudios Doctrinales*, Nº 6, 2023, p. 101.

⁶ ARENAS RAMIRO, Mónica, *El Derecho Fundamental a la Protección de Datos Personales en Europa*, Tirant Lo Blanch (Valencia, 2006), p. 80.

⁷ AGENCIA ESPAÑOLA DE PROTECCIÓN DE DATOS, "Protección de Datos: Guía para el ciudadano", 2018, p. 5.

⁸ Idem

⁹ GIAKOUMOPOULOS Christos, BUTTARELLI, Giovanni, O'FLAHERTY, Michael, "Manual de legislación europea en materia de protección de datos - Edición de 2018", *Agencia de los Derechos Fundamentales de la UE y Consejo de Europa*, 2019, pp. 95-96.

poderioz, datuen babesak beste balio bat hartu zuen, bizitza pribaturako eskubidearen barruan ez dagoena. Gainera, Europar Batasunaren ordenamendu juridikoan, datuen babesa bizitza pribatua errespetatzeko oinarrizko eskubideaz bestelako oinarrizko eskubidetzat hartzen da.

Egia da, beraien artean hainbat berdintasun dituztela, hala nola, bien helburua balore bakarra babestea dela, zehazki, pertsona fisikoen autonomia eta giza duintasuna babestea, bakoitzari eremu pertsonal bat emanaz, askatasun osoz nortasuna garatzeko, pentsatzeko eta iritziak emateko. Beraz, bi oinarrizko eskubide hauek ezinbestekoak dira beste oinarrizko askatasun batzuk egikaritzeko, besteak beste, adierazpen-askatasuna, erlijio-askatasuna, biltzeko askatasuna...

Hala ere, eskubide hauek, bere formulazio eta irismenean desberdintzen dira;¹⁰

Datu pertsonalen babeserako eskubidea, eskubide moderno eta aktibo bat da, eta herritarren datu pertsonalak tratatzen direnean horiek babesteko kontrol-mekanismoak dituen sistema bat ezartzen du, hau da, estatuak tresnak bermatu behar ditu herritarren datu pertsonalak babesteko. Tratamendu horrek datu pertsonalak babesteko funtsezko osagaiak bete behar ditu, zehazki, kontrol independentea¹¹ eta interesdunaren eskubideen errespetua. Honez gain, datu pertsonalak babesteko eskubidea datu pertsonalak tratatzen direnean sartzen da jokoan, beraz, bizitza pribatua errespetatzeko eskubidea baina zabalagoa da. Gainera, datuen babesak mota guztietako datu eta datu pertsonalen tratamenduari eragiten dio, pribatutasunarekin duen harremana eta eremu horretan duen eragina edozein delarik.

Bizitza pribatua errespetatzeko eskubideari dagokionez berriz, esku-sartzea oro har debekatzean datza, nahiz eta kasu jakin batzuetan esku-sartzea justifika dezaketen interes orokorreko irizpide jakin batzuen mende egon.

Beraz, puntu hauek aztertuta, garbi esan dezakegu, nahiz eta bi eskubide hauek beraien artean erlazionatuta dauden, esanahi desberdina dutela.

¹⁰ GIAKOUMOPOULOS Christos, BUTTARELLI, Giovanni, O'FLAHERTY, Michael, "Manual de legislación europea en materia...", *op.cit.*, pp. 19-22.

¹¹ EUROPEAN DATA PROTECTION SUPERVISOR webgunea, https://edps.europa.eu/data-protection/our-work/publications/speeches-articles/eu-data-protection-law-review-directive_en, "EU Data Protection La: the Review of Directive 95/46/EC and the Proposed General Data Protection Regulation", p. 20.

2. b) Oinarrizko Eskubidea

Datu pertsonalak antzinatik jaso eta erabili izan dira, baina mendeetan zehar ez da ia datu horien tratamendua eragozten edo murrizten duen arau juridiko nabarmenik existitu.¹²

Datu pertsonalen babesaren ez zen eskubide gisa sortu, baina gaur egun eskubide gisa finkatuta dago. Nazioartean sortu ziren lehenengo dokumentuek, datuen babesaren, datu pertsonalen fluxua edo mugimendua errazteko nazioz gaindiko estrategia gisa hartzen zuten, eta beraz, merkatu-ekonomiaren nazioz gaindiko garapena sustatzen zuten.

Teknologiaren garapenarekin, gure eguneroko esparru sozial eta ekonomikoan, aipatutako datuen fluxua nabarmena bihurtzen ari zen heinean, geroz eta garrantzi handiagoa hartu zuen, eta beraz, azken honen nazioarteko erregulazio bat beharrezkoa zela kontsideratzen zen.

1970eko hamarkadatik aurrera, datuak babesteko eskubide berri bat sortu zen esparru nazionalan, zeina lege aldetik (baita Konstituzioaren ikuspegitik) sendotu egin zen.¹³

Aipatutakoa kontutan hartuta, lehenik eta behin 1978ko Espainiako Konstituzioari buruz hitz egingo dugu. Datu pertsonalen babesaren eskubideari dagokionez, EK-ko 18.4. artikuluan¹⁴ egiten da teknologia eta bere mugapenari dagokion lehenengo erreferentzia Espainia mailan: “4. *La ley limitará el uso de la informática para garantizar el honor y la intimidad personal y familiar de los ciudadanos y el pleno ejercicio de sus derechos.*”. Bertan, legegilea informatikaren erabilaren aurrean oinarrizko eskubideak berma ditzan agintzera mugatzen da, baina ez da datuak babesteko eskubidearen aitortzea zehazten, ezta eskubide horren gutxieneko eduki konstituzionala ere. Hala ere, bertan egindako “tipifikazio aurrerakoia” nabarmendu behar da, hau da, EK-k eremu honetan izandako izaera aitzindaria, harrigarria delako 1978an informatikaren erabilera potentziala mugatzeko nahia egotea, iraultza teknologikoak gure gizartean oraindik eragin nabarmena izan ez zuelako, eta beraz, data goiztiarra zelako.¹⁵

¹² PASCUAL HUERTA, Pablo, “La génesis del derecho fundamental a la protección de datos personales”, Madrid, 2017, p. 57.

¹³ RALLO LOMBARTE, Artemi, “El nuevo derecho de protección de datos”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, Nº116, 2019, pp. 50-52.

¹⁴ Espainiako Konstituzioa (EK), 18.4. Artikulua.

¹⁵ LÓPEZ AGUILAR, Juan Fernando, “La protección de datos personales en la más reciente jurisprudencia del TJUE: Los derechos de la CDFUE como parámetro de validez del derecho Europeo, y su impacto en la relación transatlántica UE-EEUU”, *Teoría y Realidad Constitucional*, Nº 39, 2017, p. 559.

Gure Karta Magna onartu zen gaiaran, Gorte Nagusiek jakinaren gainean zuten herrialde garatuetan aplikazio informatikoak izaten ari ziren garapen garrantzitsuetaz, baina garai hartako Espainiako gizartean goi-teknologiaren mundua beste aro bateko esparrua eskusiboa zirudien. Beraz, denborak aurrera egin ahala, aipatutako artikulua honetan jasotako agindu horrek oso bestelako zentzua hartu du, idatzi zen unean egileen buruan zegoenaren aldean.¹⁶

Honekin jarraituz, nahiz eta EK-ko 18. artikuluan ez den eskubidearen aitortzea eta gutxieneko edukia zehazten, lan hori egiteaz Espainiako Konstituzio Auzitegia arduratuta da, ebatzitako hainbat epai garrantzitsuen bidez;¹⁷

Lehenik eta behin, datu pertsonalak babesteko eskubidea oinarrizko eskubide autonomo bat bezala aitortzeaz arduratuta da, zehazki, 254/1993 epaiko 6. oinarri juridikoan¹⁸: *“En el presente caso estamos ante un instituto de garantía de otros derechos, fundamentalmente el honor y la intimidad, pero también de un instituto que es, en sí mismo, un derecho o libertad fundamental, el derecho a la libertad frente a la potenciales agresiones a la dignidad y a la libertad de la persona provenientes de un uso ilegítimo del tratamiento mecanizado de datos, lo que la Constitución llama “la informática”.* Kasu honetan, datuen tratamendu desegoki batetik eratorri daitezkeen duintasun eta askatasunaren eskubideen erasoei egiten dio erreferentzia, aurretik aipatutako EK-ko 18.4. artikuluan jasotzen den informatikaren mugapenarekin bat datorrena.

Bigarrenik, datu pertsonalen babeserako eskubidea oinarrizko eskubide bezala aitortzeaz gain, azken honen gutxieneko edukia ere eman du Konstituzio Auzitegiak berak ebatzitako beste epai batzuetan, zehazki 290/2000 eta 292/2000 epaietan;¹⁹

KA-ren 290/2000 epaiak bere 7. oinarri juridikoan²⁰ dio, eskubide honek edonori bere datu pertsonalak kontrolatzeko eta erabiltzeko boterea bermatzen diola, titularrari eskubidearen funtsezko elementuak diren ahalmen batzuk emanez; besteak beste, bere datu pertsonalak biltzea eta erabiltzea baimentzeko eta datu horiek ezagutzeko ahalmenak, datu pertsonalak nork dituen eta zertarako berri izateko ahalmena, erabilera horren aurka egiteko ahalmena (dagokionari datu horien edukitza eta

¹⁶ PARDO FALCÓN, Javier, “Comentarios a la Constitución Española”, Boletín Oficial del Estado, BOE, Tribunal Constitucional, Wolters Kluwer y Ministerio de Justicia, 2018, Tomo I, p. 562.

¹⁷ RALLO LOMBARTE, Artemi, “El nuevo derecho de protección...”, *op.cit.*, pp. 56-57.

¹⁸ Auzitegi Konstituzionalaren 254/1993 Epaia, 6. OJ.

¹⁹ RALLO LOMBARTE, Artemi, “El nuevo derecho de protección...”, *op.cit.*, p. 57.

²⁰ Auzitegi Konstituzionalaren 290/2000 Epaia, 7. OJ.

erabilera amaitzeko eskatuz)... :*“En efecto, ha de tenerse presente, como ya se anticipaba en la decisión de este Tribunal que se acaba de mencionar, que el derecho fundamental al que estamos haciendo referencia garantiza a la persona un poder de control y disposición sobre sus datos personales. Pues confiere a su titular un haz de facultades que son elementos esenciales del derecho fundamental a la protección de los datos personales, integrado por los derechos que corresponden al afectado a consentir la recogida y el uso de sus datos personales y a conocer los mismos. Y para hacer efectivo ese contenido, el derecho a ser informado de quién posee sus datos personales y con qué finalidad, así como el derecho a oponerse a esa posesión y uso exigiendo a quien corresponda que ponga fin a la posesión y empleo de tales datos.”.*

Hau azalduta, orain KA-k emandako 292/2000 epaiaren 5. eta 6. oinarri juridikoak²¹ aztertuko ditugu.

Epaiko 5. oinarri juridikoari dagokionez, datu pertsonalak babesteko eskubideak, titularrari, hirugarrenek pertsonaren esparru intimo edo pribatuan inolaz ere ez sartzeko betebeharra ezartzeko botere juidikoa eman beharrea, ahalmen sorta bat ematen dio, datu pertsonalen gaineko xedapen-boterea emanaz: *“Este derecho fundamental a la protección de datos, a diferencia del derecho a la intimidad del art. 18.1 C.E., con quien comparte el objetivo de ofrecer una eficaz protección constitucional de la vida privada personal y familiar, atribuye a su titular un haz de facultades que consiste en su mayor parte en el poder jurídico de imponer a terceros la realización u omisión de determinados comportamientos cuya concreta regulación debe establecer la Ley, aquella que conforme al art. 18.4 C.E. debe limitar el uso de la informática, bien desarrollando el derecho fundamental a la protección de datos (art. 81.1 C.E.), bien regulando su ejercicio (art. 53.1 C.E.).”.*

Epaiko 6. oinarri juridikoari dagokionez, oinarritzko eskubide honen helburua titularrari bere datu pertsonalen erabilera eta xedearen gaineko kontrol bat izatea bermatzea da, ukituaren duintasun eta eskubideari kalte egiten dion legez kontrako trafikoa eragozteko: *“En cambio, el derecho fundamental a la protección de datos persigue garantizar a esa persona un poder de control sobre sus datos personales, sobre su uso y destino, con el propósito de impedir su tráfico ilícito y lesivo para la dignidad y derecho del afectado.”.*

Gainera, datu pertsonalak babesteko eskubidearen berezitasuna nabarmentzen da, azken honen xedea eta edukia zein den jaso. Bertan adierazten den bezala, datuak babesteko oinarritzko eskubidearen xedea intimitaterako eskubidearena baina

²¹ Auzitegi Konstituzionalaren 292/2000 Epaia, 5. eta 6. OJ.

zabalagoa da. Izan ere, ez da datu intimoetara soilik mugatzen, baizik eta edozein datu pertsonaletara: *“De ahí la singularidad del derecho a la protección de datos, pues, por un lado, su objeto es más amplio que el del derecho a la intimidad, ya que el derecho fundamental a la protección de datos extiende su garantía no sólo a la intimidad en su dimensión constitucionalmente protegida por el art. 18.1 C.E., sino a lo que en ocasiones este Tribunal ha definido en términos más amplios como esfera de los bienes de la personalidad que pertenecen al ámbito de la vida privada, inextricablemente unidos al respeto de la dignidad personal (STC 170/1987, de 30 de octubre, F.J. 4), como el derecho al honor, citado expresamente en el art. 18.4 C.E., e igualmente, en expresión bien amplia del propio art. 18.4 C.E., al pleno ejercicio de los derechos de la persona.*

De este modo, el objeto de protección del derecho fundamental a la protección de datos no se reduce sólo a los datos íntimos de la persona, sino a cualquier tipo de dato personal, sea o no íntimo, cuyo conocimiento o empleo por terceros pueda afectar a sus derechos, sean o no fundamentales, porque su objeto no es sólo la intimidad individual, que para ello está la protección que el art. 18.1 C.E. otorga, sino los datos de carácter personal.”.

Hirugarrenik, jakinda datu pertsonalen babeserako eskubideari buruz hitz egitean oinarrizko eskubide baten aurrean gaudela, Espainiako Konstituzioak oinarrizko eskubideei aitortzen dizkien bermeak²² aztertuko ditugu. Horretarako, EK-ko 53.1., 53.2. eta 81.1. artikulua adierazten dutena arakatuko dugu.

EK-ko 53.1. artikuluari dagokionez, EK-ko 14. artikulutik 38. artikuluraino jasotzen diren eskubideak, botere publiko guztiak lotzen dituzte, eta azken hauen funtsezko edukia errespetatu beharko dute: *“1. Los derechos y libertades reconocidos en el Capítulo segundo del presente Título vinculan a todos los poderes públicos. Sólo por ley, que en todo caso deberá respetar su contenido esencial, podrá regularse el ejercicio de tales derechos y libertades, que se tutelarán de acuerdo con lo previsto en el artículo 161, 1, a).”.*

EK-ko 53.2. artikuluari dagokionez, askatasun eta eskubideen babesa errespetatu beharko da auzitegi arruntetan, beti ere lehenetasun eta sumariotasun printzipiotan oinarritutako prozeduren bidez, eta hala badagokio, Konstituzio Auzitegiaren aurrean tarteratutako babes-errekurtsoen bidez: *“2. Cualquier ciudadano podrá recabar la tutela de las libertades y derechos reconocidos en el artículo 14 y la Sección primera*

²² AMÉRIGO ALONSO, José, “El marco normativo de la protección de datos en España”, 2020, p. 21.

del Capítulo segundo ante los Tribunales ordinarios por un procedimiento basado en los principios de preferencia y sumariedad y, en su caso, a través del recurso de amparo ante el Tribunal Constitucional. Este último recurso será aplicable a la objeción de conciencia reconocida en el artículo 30.”.

EK-ko 81. artikuluari dagokionez, oinarritzko eskubide baten aurrean gaudenez, azken hauen erabilera lege organiko bidez arautua egon behar du: *“1. Son leyes orgánicas las relativas al desarrollo de los derechos fundamentales y de las libertades públicas, las que aprueben los Estatutos de Autonomía y el régimen electoral general y las demás previstas en la Constitución.”.*

Eremu nazionala aztertuta, EBren eremua aztertu behar dugu, zehazki, 1999eko ekainean Koloniako bilera batean agindutakoa betetzeko sortu zen Oinarritzko Eskubideen Gutuna. Bilera horretan, hainbat erabaki hartu²³ ziren; Alde batetik, momentu horretan EBk zuen egoera kontuan hartuta, eremu geografiko eta politikoki horretan aplikagarriak ziren oinarritzko eskubideak gutun batean finkatu behar zirela erabaki zen, nabariagoak izatea bermatzeko. Eta bestetik, dokumentu horrek Europako herritarren eskubideak jaso behar zituela erabaki zen.

Urte bat beranduago, zehazki 2000. urtean, aipatutako Gutuna Nizan onartua izan zen.

Eremu honetan, aipagarria da Lisboako Tratatuak edo Erreformak Gutun honetan izandako eragin nabarmena. Lisboako Tratatuak, 2007an onartua izan zen, baina ez zen indarrean sartu 2009ko abenduaren 1a arte. Honekin, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak, EBren mailan eman ziren beste tratatuek izandako indar juridiko berdina lortu zuen²⁴, zeinaren arabera, pertsona orok izaera pertsonaleko datuak babesteko dugun oinarritzko eskubidea²⁵ ezarri zen, bizitza pribatuarekiko errespetuaren oinarritzko eskubidetik at jasoz (eskubide autonomo bat bezala); *“Artículo 8 - Protección de datos de carácter personal. 1. Toda persona tiene derecho a la protección de los datos de carácter personal que la conciernen.”.*

Eskubide hau aipatutako EBOEGean eskubide autonomo bat bezala jasotzeak, ez zekarren egitura nazionalaren, legalaren eta konstituzionalaren beharrezko aldaketa bat. Baina EBOEG honetan jasotako beste oinarritzko eskubide batzuekin alderatuta, datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubideak, Europa mailan, iada bazituen arauketa batzuk, orain aztertuko ditugunak.

²³ RUIZ MIGUEL, Carlos, “El derecho a la protección de datos personales en la Carta de derechos de la Unión Europea: Análisis Crítico”, 2007, p. 8.

²⁴ RALLO LOMBARTE, Artemi, “El nuevo derecho de protección...”, *op.cit.*, p. 53.

²⁵ Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna (EBOEG), 8. Artikulua.

2. c) Araudia

Datu babeserako eskubidearen araudia aztertzen hasi aurretik, garbi izan behar dugu 2 zuzenbide mota daudela;

Alde batetik, jatorrizko edo sorrerako zuzenbidea dago, zeinak eremu honetan zein oinarrizko eskubide dauden adierazten duen. Kasu honetan, Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Europako Hitzarmena, EBT eta EBFT, eta EBOEG ditugu. Hauei dagokionez, GEOAEH-eko 7. artikuluan, EBFTko 16. artikuluan eta EBOEG-eko 8. artikuluan arautzen da pertsona guztiek datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidea dugula.

Bestetik, zuzenbide eratorria dago, eta honi dagokionez, jatorrizko zuzenbidea kontuan hartuta estatu-kideek garatzen duten zuzenbidea da. Multzo honek, gero aipatuko ditugun erregelamendu, zuzentarau, lege organiko... guztiak barne hartzen ditu.

Hau azalduta, datu babeserako eskubidearen eremuan jatorrizko zuzenbidea zein den aztertzen hasiko gara.

2. c). i. Jatorrizko Zuzenbidea

Segida kronologiko bat jarraituz, lehenik eta behin aipatu beharreko nazioarteko araua, GEEH da. Honi dagokionez, Bigarren Mundu Gerra amaitu eta gero, Europako estatu guztiak biltzeko, zuzenbide-estatua, demokrazia, giza eskubideak eta gizarte-garapena sustatzeko, Europako Kontseilua sortu zen. Aipatutako helburuak lortzeko, GEEH, 1950. urtean onartua izan zen, eta 1953ko irailaren 3an sartu zen indarrean. Nazioarteko hitzarmen honetan parte hartzen duten estatuak, bertan ezarritako betebeharrak burutzeko obligazioa dute.²⁶ Datu pertsonalen babeserako eskubidea, hitzarmeneko 8. artikuluan²⁷ jasotzen diren eskubideen parte da, besteak beste, bizitza pribatua eta familia-bizitza, bizilekua eta korrespondentzia errespetatzeko eskubideen parte; *“ARTÍCULO 8 - Derecho al respeto a la vida privada y familiar. 1. Toda persona tiene derecho al respeto de su vida privada y familiar, de su domicilio y de su correspondencia.”*.

Artikulu honek, ez dio EBri horri buruz arautzeko eskubiderik ematen, baizik eta botere publikoak gainditu ezin duen eremua ezartzen du. Nahiz eta datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidea artikulu honetan zehazki ez jaso, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, eskubide hau bizitza pribatua errespetatzeko eskubidearen

²⁶ GIAKOUMPOULOS Christos, BUTTARELLI, Giovanni, O'FLAHERTY, Michael, “Manual de legislación europea en materia...”, *op,cit.*, p. 26.

²⁷ Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (GEEH), 8. Artikulua.

barnean sartzen dela kontsideratu zuen. Aurrerapen teknologikoak direla eta, eta Estatuak gero eta kontrol-gaitasun handiagoa dutela kontuan hartuta, ordenagailuen bidez informazioa biltzeak bizitza pribatua bermatzeko arriskuak sortu ditzakenez, datu pertsonalen defentsa ezinbesteko elementua bihurtu da gizabanakoek beren eremu pribatua izan dezaten. Hitzarmen hau sinatu zuten estatu-kide gehienek, ez dute beren Konstituzioetan datu pertsonalen babeserako eskubide hau oinarrizko eskubide bat bezala kalifikatu, baizik eta estatu-kide horietako Auzitegi Konstituzionalak izan dira eskubide hau bizitza pribatuaren oinarrizko eskubidearen barnean edo honekin zerikusia duen beste oinarrizko eskubide baten barnean sartzen dela interpretatu dutenak. Horregatik nabarmentzen da GEEAk eremu honetan izandako garrantzia, batez ere datu pertsonalen babeserako eskubidearen berme eta aitorpenean.²⁸

Urte gutxi batzuk beranduago, zehazki 1957an, gaur egun EBeko Funtzionamenduari buruzko Tratatu bezala ezagutzen dugun hitzarmena sartu zen indarrean. Azken hau, Erroman sinatu zen Europako Ekonomia Erkidegoa eratzeko Ituna bezala, baina urteak pasata, hainbat erreformen ondorioz, izenez aldatzen joan zen. 1992an, Europako Erkidegoa eratzeko Ituna bezala ezagutzen zen, eta azkenik, 2009ko Lisboako Tratatu indarrean sartu zenean, gaur egun ezagutzen dugun EBFT izenarekin gelditu zen.

Azken honi dagokionez, bere 16.1. artikuluan²⁹, pertsona orok berari dagozkion datu pertsonalak babesteko eskubidea duela jasotzen da. Bigarren azpi-puntuan, datu pertsonalak babesteari buruzko arauak hartzeko oinarri juridiko espezifikoa jasotzen da³⁰. Artikulu honek, EBri gai honi buruz erregulatzeko eskubidea ematen dio. Hala ere, Batzordearen iritziz, egoera hau ez zen esparru juridiko berri hau erabiliz datuak babesteko araudiaren ikuspegia berriro diseinatzeko aukera berri bat. Baizik eta, Batzordeak, Europako Kontseiluak gonbidatuta, datuak babesteko EBren tresnen funtzionamendua ebaluatu behar zuen, eta beharrezkoa izanez gero, legegintza-ekimen berriak aurkeztu behar zituen.

Historian zehar emandako ondorengo aurrera pausoa, EBOEG da. Honi dagokionez, nahiz eta 2000. urtean sortu, ez zen 2009. urtera arte izan Lisboako Tratatuarekin indarrean sartu zela. Aurretik aipatu dugun bezala, datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidea EBOEGren 8. artikuluan jasotzen da, baina azken honek bere 7.

²⁸ ARENAS RAMIRO, Mónica, "El Derecho Fundamental a la Protección...", *op.cit.*, pp. 65-80.

²⁹ Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatu (EBFT), 16. Artikulua.

³⁰ RALLO LOMBARTE, Artemi, "Hacia un nuevo sistema Europeo de protección de datos: las claves de la reforma", *Revista de Derecho Político*, N°85, 2012, p. 28.

artikuluarekin lotura handia du. EBOEGren 7. artikuluan, pertsona orok bere bizitza pribatu eta familia-bizitza, bizilekua eta komunikazioak errespetatuak izateko eskubidea duela jasotzen da, eta datu babesaren bizitza pribatua barne-biltzen da, beraz, aipatzeko artikulua nabarmen bat litzateke.

2. c). ii. Zuzenbidea Eratorria

2. c). ii. 1. Europar Batasunean

Jatorrizko Zuzenbidea azalduta, orain estatu-kideek garatzen duten zuzenbidea aztertuko dugu, zehazki, Zuzenbide Eratorria. Honen barnean, datu babeserako eskubidea erregulatzen duten hainbat erregelamendu, zuzentarau, lege-organiko... daude. Kasu honetan, Zuzenbide Eratorria azaltzeko, datu babeserako eskubideak murgiltzen dituen eremu guztiak aztertuko ditugu.

Datu babesak gaur egun oso garrantzitsuak diren hainbat alderdi barne hartzen ditu, zehazki, datu babesa eremu orokorrean, komunikazio elektronikoa, zibersegurtasuna eta adimen artifiziala. Beraz, datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubideari dagokion EBren araudia, 4 multzo ezberdinetan banatuko dugu, gero banan-banan aztertuko ditugunak;

Alde batetik, datu babesa eremu orokorrean barne hartzen duen EBren araudia dugu. Multzo honetan, DBEO (2016/679 Erregelamendua), 2016/680 Zuzentaraua, 2016/681 Zuzentaraua eta 2018/1725 Erregelamendua ditugu.

Bestetik, komunikazio elektronikoetan datuak babesteari buruzko EBren araudia dugu. Multzo honetan, 2002/58 Zuzentaraua, 2006/24 Zuzentaraua eta 2018/1972 Zuzentaraua ditugu.

Bestalde, datuen babesari eragiten dion zibersegurtasunari buruzko EBren araudia dugu. Multzo honetan, 2022/2555 Zuzentaraua eta 2019/881 Erregelamendua ditugu.

Azkenik, datuen babesari eragiten dion adimen artifizialari buruzko EBren araudia dugu. Multzo honetan, oraindik ez dira araurik sortu, baina badaude hainbat proposamen, besteak beste, adimen artifizialari buruzko Erregelamendu proposamena eta adimen artifizialeko kontratuz kanpoko materiari buruzko Zuzentarau proposamena.

a. Datu Babesa eremu orokorrean barne hartzen duen EBren araudia

Aipatutakoa kontuan hartuta, lehenengo multzoa aztertzen hasiko gara, zehazki, datu babesa eremu orokorrean edo zentzu zabalean barne hartzen duen EBren araudia, zeina, aipatu bezala, 2 erregelamendu eta 2 zuzentarauek osatzen duten (Eremu

orokorra DBEOK osatzen du, baina beste arauak eremu orokorraren arlo bereziak edo berezitasunak dira, eta azken horiek ere aztertuko ditugu);

Gaur egungo araudian sakontzen hasi baino lehen, datu pertsonalen babeserako eskubidearen araudiari dagokionez orain arte izandako ibilbide historikoa azalduko dugu, garapena nolakoa izan den kontuan izateko.

Historian zehar emandako lehen pausoa, Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmena izan zen, 1981eko urtarrilaren 28koa, datu pertsonalen tratamendu automatizatuari dagokionez pertsonak babesteko sortu zena³¹. Hitzarmen hau, datuen babeserako arloan, juridikoki loteslea den nazioarteko lehen tresna izan zen. Azken honen helburua, edozein pertsona fisikori bere oinarrizko eskubide eta askatasunak errespetatuko direla bermatzea da, zehazki, bizitza pribaturako eskubidea, pertsona bakoitzari dagozkion datu pertsonalen tratamendu automatizatuari dagokionez.³² Eremu honetan, hitzarmena aldatu zuen protokoloa aipatu behar dugu, zehazki, 108+ Hitzarmena³³, zeinaren helburua, haren aplikazio-eremua zabaltzea, datuen babes-maila handitzea eta eraginkortasuna hobetzea zen.

Honekin jarraituz, 95/46/CE Zuzentaraua aipatu behar dugu. Zuzentarau honen helburua datuak babesteko oinarrizko eskubidea defendatzea eta datu horien zirkulazioa estatu-kideen artean askatasunez bermatzea zen. Dakigunez eta EBFTko 288. artikuluari jarraiki, zuzentarauak estatu-kideei zuzentzen zaizkie, eta azken hauek tokiko legeetara ekarri edo transponitu behar dute zuzentaraua. Printzipioz, ez dira legez herritarrentzat lotesleak, hau da, derrigorrez bete behar den zuzeneko araua estatu-kideko araua da, zuzentarauak ez dauka zuzeneko eragina, ez da zuzenean aplikagarria. Zuzentarauak, azken honek agindutako emaitzak lortzera behartzen ditu estatu-kideak, baina ez dute emaitza horiek nola lortu behar dituzten adierazten, estatu-kideek ikusiko dute helburu horiek nola lortuko dituzten. Zuzentarauak epe bat adierazten du eta ordurako emaitza edo helburu horiek beteta egon behar dira.³⁴ Aipatutakoa kontuan hartuta, zuzentarau honen transposizioa 1998. urtearen amaieran egin behar zen, baina Espainian ez zen 1999ko abendura arte izan zuzentaraua

³¹ BLASI CASAGRAN, Cristina, *La protección de los Derechos Fundamentales en el Tratado de Lisboa*, Quaderns de treball (Barcelona, 2011), p. 21.

³² BUX, Udo, MACIEJEWSKI, Mariusz, "La protección de los datos personales", *Fichas temáticas sobre la Unión Europea*, Parlamento Europeo, 2023, p. 2.

³³ AMÉRIGO ALONSO, José, "El marco normativo de la protección...", *op.cit.*, p. 23.

³⁴ Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Tratatu (TFUE), 288. Artikulua.

Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren bidez transponitu zela, eta azken hau 2000. urteko urtarrilean sartu zen indarrean.

Hau esanda, urte batzuk beranduago, Europako Kontseiluak erregelamendu baten proiektua aurkeztu zuen, eta hauek izan ziren zuzentaraua erregelamenduarengatik aldatua izateko proposamenaren faktore eta arrazoiak³⁵;

- Zuzentarauak estatu-kideetan izandako transposizio eskasa, eta ondorioz, Europaren harmonizazio ahula.
- Datuak babesteko agintaritzak nazionalak, Europako lurralde osoan datu pertsonalen babeserako eskubidearen bermeak eraginkorrak izateko dituzten mugak.
- Europako eta Ipar Amerikako enpresa multinazionalen etengabeko presioa, nazioarteko transferentzien aurrean oztopo asko eta arau nazionaletan desberdintasun asko zeudelako.
- AEBen titulartasunekoak diren online zerbitzuen, hala nola, sare sozialen eragin teknologiko ikaragarria, Europaren eskakizunetik kanpo zegoena.
- Pribatutasunaren babesak sozialki izandako inpaktuaren hedadura eta gaiaren inguruko gizartearen sentsibilizazioaren hazkunde nabarmena.
- Europa eta AEBen artean elkarrizketa transatlantiko zaila, bereziki segurtasun helburuetarako datu-transferentziei buruzkoa.
- Europako segurtasun-agenda berak, datu pertsonalak transmititzeko eskakizunak areagotzen zituen.
- Lisboako Tratatuaren indarrean sartzeak, datu pertsonalen babeserako eskubidearen bermeak modu eraginkor batean betetzeko asmo berrien itxaropenak bultzatu zituen.

Orain arte izandako aurrekari historikoak azalduta, gaur egun indarrean dugun EBren araudia azalduko dugu, zehazki, aurretik aipatu ditugun EBren Datuak Babesteko Erregelamengu Orokorra eta gai honekin zerikusia duten bi zuzentaru eta beste erregelamendua. 2015eko abenduaren 17an, EBeko Kontseilu eta Legebiltzarrak aipatutako 3 arauen behin betiko idazketa onartu zituzten (DBEO eta 2 Zuzentarauak).

³⁵ RALLO LOMBARTE, Artemi, "Hacia un nuevo sistema Europeo de protección...", *op.cit.*, p. 25.

Proiektu honen helburua, datu pertsonalen titularrei dagozkien datuak urratu ditzaketen ekipo informatikoei eraso egiteko modu berriei aurre egiteko bermeak indartzea zen³⁶.

2016/679 Erregelamenduari dagokionez (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO)³⁷), 2016ko maiatzaren 4an argitaratu zen, baina ez zen guztiz aplikagarria izan 2018ko maiatzaren 25a arte. Aplikagarria izateko bi urteko itxaronaldiaren arrazoia, erregelamenduari lotutako erakundeak berritasunetara eta betebeharrretara pixkanaka egokitu ahal izatea izan zen³⁸. Honen zeregina, interesdunari bere eskubideak baliatzea errazteko formulak arbitratzen saiatzea da, doan eskatu eta lortzeko mekanismoak barne, bereziki, datu pertsonaletarako sarbidea eta horiek zuzendu edo ezabatzea, baita aurka egiteko eskubidea baliatzea ere³⁹.

Erregelamendu honek aldaketa kualitatiboa dakar arlo honen erregulazioan. Aldaketa honen arrazoia erregulazio nazionalak eragindakoa (nahiko aurreratuta baitaude datu pertsonalen babesa oinarrizko eskubidetzat onartzeari dagokionez) eta Auzitegi Gorenen, EBeko Justizia Auzitegiaren, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren... jurisprudentziak eragindakoa izan daiteke, eta izaera honek etengabe aldatzen ari den gai bat eguneratzeko aukera ematen du. Gainera, erregelamendu hau guztiz onartua izan zenetik zuzenean aplikagarria izatea, azken honek duen garrantzi nabarmenaren irudi da⁴⁰.

Erregelamendu hau, EK-ko 18.4. artikulutik eratortzen den datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidearen funtsezko edukia garatzeko eta zehazteko arau gisa sortu zen, eta gero ikusiko dugun Espainia mailan datuen babeserako eskubidea arautzen duen 3/2018 Lege Organikoa, eginkizun osagarri hutsa sortu zen. Gainera, aipatutako lege organiko horretan, zehazki hitzaurrean, araudi honek duen izaera bikariotza onartzen da, hau da, beste araudi baten boterea eta ahalmenak dituela edo beste araudi bat ordezkutzen duela, segurtasun juridikoaren printzipioa babesteko onartu zelako, bai ordenamendu nazionala arazteko, bai erregelamendua garatzeko

³⁶ PÉREZ-LUÑO ROBLEDO, Enrique César, "La nueva normativa Europea para la Protección de los Datos Personales", 2019, p. 216.

³⁷ PIÑAR MAÑAS, Jose Luis, *Reglamento General de Protección de Datos, hacia un nuevo modelo Europeo de privacidad*, Reus (Madrid, 2016). Liburu honetan gaur egun datu babeserako esparruan oinarrizkoa eta ezinbestekoa den DBEOri buruzko informazioa aurkitu dezakegu, bertan erregelamenduari analisi sakon bat egiten delako.

³⁸ TERRÓN SANTOS, Daniel, DOMÍNGUEZ ÁLVAREZ, José Luis, *Nueva Regulación de la Protección de Datos y su perspectiva digital*, Comares (Granada, 2019), p. 11.

³⁹ PÉREZ-LUÑO ROBLEDO, Enrique César, "La nueva normativa Europea para la Protección...", *op.cit.*, pp. 216-217.

⁴⁰ ARAQUE GARCÍA, Alejandro, "La autonomía de la voluntad en la protección de datos y el olvido digital: pieza central, pero, ¿suficiente?", *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, Nº 16, 2021, p. 106.

edo osatzeko. Beraz, bi araudi desberdin talka egiten duten kasuetan (antinomia), erregelamendua da lehentasuna duen arau-xedapena, barne-zuzenbideko edozein arau (lege organikoak barne) alde batera utziz⁴¹.

Erregelamenduaren lurralde-irismenari dagokionez, EBean kokatutako enpresei aplikatzeaz gain, EBean kokatuta ez dauden baina bertan interesatuak daudenei ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dizkien datuen tratamenduaren arduradunei ere aplikatzen zaie⁴².

Gutziz aplikagarria izan denetik, EBren araurik ezagunetariko bat da, bere mugetatik kanpo eragin nabarmena izanez. Erregelamendu hau estandar moduko bat bihurtu da datu pertsonalen babesaren esparruan, eta bertan tipifikatutako arauak mundu osoan sortzen diren lege modernoak nolakoak diren baloratzeko parametro gisa erabiltzen dira⁴³. Beraz, esparru honetan EBeko organo gorenek egin duten lana oso garrantzitsua eta nabarmena izan dela kontsideratu dezakegu.

2016/680 Zuzentarauari dagokionez, agintari eskudunek pertsona fisikoen datu pertsonalak tratatzea babesten du, zehazki, arau-hauste penalak prebenitzeko, ikertzeko, detektatzeko edo epaitzeko, eta zehapen penalak betearazteko, bai eta datu horiek askatasunez zirkulatzeko ere. Bere 63. artikuluan jasotzen denaren harira, EBeko estatu-kideek 2018ko maiatzaren 6a baino lehen, bertan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak onartu eta argitaratu behar zituzten. Azken honen helburu nagusia, arlo kriminaleko lankidetzaren eta judizialaren eremuan erabilitako datu pertsonalak segurtasun- eta konfidentzialtasun-maila egokia bermatzeko moduan tratatzea da, bereziki, baimenik gabe datu horietara sartzea edo datu horiek eta tratamenduetan erabilitako ekipamendua baimenik gabe erabiltzea galaraziz.

Arau honekin, garrantzi handiko datuen babes sendoa ziurtatu nahi da. Gainera, honekin EBeko estatu-kideetako agintari polizial eta judizialen arteko konfiantza hobetzeaz ez ezik, datuen fluxu-askatasun handiagoa eta beraien arteko lankidetzaren eraginkorra bermatzea bilatzen da⁴⁴.

⁴¹ JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael, "El nuevo marco normativo de la Protección de Datos Personales: su aplicación a las entidades locales", 2019, pp. 328-329.

⁴² CARAZO LIÉBANA, María José, *El Derecho a la Protección...*, *op.cit.*, p. 46.

⁴³ GASCÓN MARCÉN, Ana, "El Reglamento General de Protección de Datos como modelo de las recientes propuestas de legislación digital Europea", *Cuadernos de Derecho Transnacional*, 2021, p. 210.

⁴⁴ PÉREZ-LUÑO ROBLEDO, Enrique César, "La nueva normativa Europea para la Protección...", *op.cit.*, pp. 229-233.

Esparru hau arautuz, EBren egintza juridiko espezifikoa bihurtzen da. Bertan, EBeko estatu-kideei betebeharrak batzuk ezartzen zaizkie, eta azken hauek pertsona fisikoen oinarritzko eskubideak eta askatasunak babestu beharko dituzte, berezki, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea. Aldi berean, EBren edo estatu-kideetako zuzenbideak datu pertsonalen trukaketa eskatzen badu, EBren lurralde eremuan eskumena duten agintariak, pertsona fisikoen babesarekin zerikusia duten arrazoiengatik datu pertsonalak elkartrukatzera mugatu eta debekatuko ez dela bermatu beharko dute⁴⁵.

2016/681 Zuzentarauari dagokionez, terrorismo delituak eta delinkuentzia larria prebenitu, ikertu, antzeman edo auzitaratzeko asmoz bidaiarien izenen erregistroko (PNR) datuak erabiltzeari buruzkoa da. Azken honen helburu nagusia, segurtasuna bermatzea, herritarren bizitza eta segurtasuna babestea, eta PNR datuak babesteko esparru juridikoa sortzea da. "Passenger Name Record" (PNR), erreserba-sistemaren bidez egindako erreserbei buruzko informazioa da, zehazki horri buruzko datuak izendatzeko modua. Hau da, estatu-kideek elkarlanean egongo dira, datuen babesaren arduradunak bidaiariei buruzko informaziorako unitate bakarrak tratatutako datu guztiak eskura izan ditzan⁴⁶.

Egoera honi buruzko arazoa, 2001eko irailak 11n gertatutako atentatu terroristen ondorioz eman zen. AEBetan araudi bat ezarri zuten, zeinaren arabera, AEBetara joateko edo bertatik irteteko ibilbidea egiten zuten hegazkin-konpainiek, bertako aduana-agintariei erreserben eta irteeren kontroleko sistema automatizatuen datuetara sarbide elektronikoa eman behar zuten (hau da, aipatutako PNR datuak ematea). Honen aurrean, EBren araudiaren kontrakoa izan zitekeela kontsideratu zen, esparru honetan segurtasunaren interesak jokoan zeudelako. Hala ere, AEBk, erabaki honen aurrean, aipatutako araudiaren indarraldi-epea atzeratu zuen, baina egoera honen aurrean eman zitezkeen egoeren ondorioz zehapenak ezartzeari edo eskubideak galtzeari uko egin ez zioten. Beraz, momentu horretatik aurrera, hainbat hegazkin-konpainiek beraiek jasandako PNR datu horietarako sarbidea eman zuten.⁴⁷

Azkenik, multzo honen barnean EBren 2018/1725 Erregelamendua aipatu beharra dago. Erregelamendu hau pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, EBeko instituzio,

⁴⁵ TERRÓN SANTOS, Daniel, DOMÍNGUEZ ÁLVAREZ, José Luis, *Nueva Regulación de la Protección de Datos...*, *op.cit.*, pp. 3-4.

⁴⁶ PÉREZ-LUÑO ROBLEDO, Enrique César, "La nueva normativa Europea para la Protección...", *op.cit.*, pp. 233-235.

⁴⁷ BLASI CASAGRAN, Cristina, *La protección de los Derechos Fundamentales...*, *op.cit.*, p. 22.

organo eta organismoek datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez. Aurretik aipatutako erregelamendua, zehazki, DBEO, estatu-kide eta partikularrei zuzenduta dago, baina kasu honetan, erregelamendu hau EBean dauden instituzio edo organoek esku artean erabiltzen dituzten datu pertsonalak eta horien tratamendua babesteko sortu zen, azken batean, Datuak Babesteko Europako Batzordeak, Inbertsioen Europako Bankuak, Europako Kontuen Auzitegiak... datu pertsonalen kantitate garrantzitsuak maneiatzen dituztelako.

b. Komunikazio Elektronikoetan Datu Babesari buruzko EBren araudia

Bigarren multzoari dagokionez, komunikazio elektronikoetan datuak babesteari buruzko EBren araudia dugu, zeina, aipatu bezala, 3 zuzentarauk osatzen duten.

Lehenengo zuzentaruari dagokionez, 2002/58 Zuzentaraua dugu, pribatutasunari eta komunikazio elektronikoei buruzkoa dena, zehazki, komunikazio elektronikoen sektorean datu pertsonalen tratamenduari eta intimitatearen babesari buruzkoa.

Bigarren zuzentaruari dagokionez, 2006/24 Zuzentaraua⁴⁸ dugu, sarbide publikoko komunikazio elektronikoen zerbitzuak edo komunikazioen sare publikoak ematearekin lotuta sortutako edo tratatutako datuak gordetzeari buruzkoa dena. Azken honek, aurretik aipatutako 2002/58 Zuzentaraua aldatzen du, eta ondorio asko sortu ditu EBean. Gero sakonki aztertuko dugun epai batean ("*Digital Rights Ireland*") ebatzi zen bezala, zuzentarau hau indarrean sartu eta urte batzuk beranduago, bertan behera utzi zen, iada estatu-kide batzuek azken honen transposizioa eginga zutela. Beraz, zuzentarau hau aipatzea garrantzitsua liteke, azken honek EB mailan arazo nabarmenak sortu dituelako arlo honetan.

Hirugarren eta azken zuzentaruari dagokionez, 2018/1972 Zuzentaraua⁴⁹ dugu, Komunikazio Elektronikoen Europako Kodea ezartzen duena.

⁴⁸ RODOTÀ Stefano, "La conservación de los datos de tráfico en las comunicaciones electrónicas", *Revista de Internet, Derecho y Política*, 2006. Artikulu akademiko honetan, EBean 2002/58 Zuzentaruaren eta 2006/24 Zuzentaruaren inguruko informazioa aurkitu dezakegu. Bertan, komunikazio elektronikoetan eragina duen datu babeserako informazioa azaltzen da.

⁴⁹ HEREDERO CAMPO, M.T., "Directiva (ue) 2018/1972, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de diciembre de 2018, por la que se establece el Código Europeo de las Comunicaciones Electrónicas", *Ars Iuris Salmanticensis*, Vol. 7, 2019. Artikulu akademiko honetan, zuzentarau honi buruzko informazio gehiago aurkitu dezake, besteak beste, helburua, zer arautzen duen, zertarako balio duen...

c. Datuen Babesari eragiten dion Zibersegurtasunari buruzko EBren araudia

Hirugarren multzoari dagokionez, datuen babesari eragiten dion zibersegurtasunari buruzko EBren araudia dugu, zeina, aipatu bezala, zuzentarau batek eta erregelamendu batek osatzen duten.

Zuzentaruari dagokionez, 2022/2555 Zuzentaruua dugu (NIS2 Zuzentaruua), EB osoan zibersegurtasun-maila erkide handia bermatzeko neurriei buruzkoa. Honi dagokionez, informazioaren segurtasunaren arloan EBeko estatu-kideen arteko lankidetzeta eta koordinazioa sustatzen ditu, balizko gorabehera zibernetikoen aurrean erantzun eraginkorragoa eta prestakuntza hobea ahalbidetuz.

Kasu honetan, 2022. urteko zuzentarau bat denez eta EBeko estatu-kideek arau hau bere barne ordenamenduan transpositzeko edo garatzeko 2 urte behar dituztenez, oraindik prozesu horretan diharduten dira.

Erregelamenduari dagokionez, 2019/881 Erregelamendua⁵⁰ dugu, Zibersegurtasunerako EBeko Agentzia sortzen duena eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien zibersegurtasunaren ziurtapenari buruzkoa dena.

d. Datuen Babesari eragiten dion Adimen Artifizialari buruzko EBren araudia⁵¹

Laugarren eta azkeneko multzoari dagokionez, datuen babesari eragiten dion adimen artifizialari buruzko EBren araudia dugu. Kasu honetan, aipatu bezala, oraindik ez ditugu araurik indarrean, oso gai berria delako. Baina badaude arauen proposamen batzuk, laister indarrean jarriko direnak, zehazki, erregelamendu baten eta zuzentarau baten proposamenak.

Erregelamenduaren proposamenari dagokionez, 2021. urtean aurkeztutakoa da, eta merkatu bakar osoan oinarritzko eskubideak errespetatuko dituen adimen artifizial ziur eta legala garatzea eta eskuratzea sustatzera bideratuta dago.

⁵⁰ MIRASHI, Eltjon, *Tratamiento procesal del cibercrimen y diligencias de investigación tecnológica*, Aranzadi, (Pamplona, 2023). Liburu honetako 1.3.4. puntuan, EBren 2019/881 Erregelamenduari erreferentzia egiten zaio, datu babesari eragiten dion zibersegurtasunaren gaur egungo araudia azaltzerakoan.

⁵¹ HERRERA DE LAS HERAS, Ramón, *Aspectos legales de la inteligencia artificial: personalidad jurídica de los robots, protección de datos y responsabilidad civil*, Dykinson (2022). Liburu honetan datu babesean duen eragina adimen artifizialari buruz hitz egiten da, beraz interesgarria liteke liburu hau aztertzea.

Zuzentarauaren proposamenari dagokionez, 2022. urtean aurkeztutakoa da, eta adimen artifizial sistemek eragindako kalte-galerak erreklamatzeko prozeduretan informazioa ezagutarazteari eta froga-karga murrizteari buruzko arau berriak ezartzen ditu.

2. c). I. ii. Estatu-Mailan

Datu pertsonalen babeserako eskubidearen estatu-mailako araudia aztertzen hasi aurretik, Espainian gaudenez, Espainiako araudia aztertuko dugu.

Aurretik aipatu dugun bezala, Espainia mailan datu pertsonalen babeserako eskubidea EK-ko 18. artikuluan jasotzen da, zehazki, artikulua horren 4. azpi-puntuari, eta oinarritzko eskubide baten aurrean gaudenez, lege organikoz erregulatu beharreko eskubidea da. Horregatik, Espainia mailan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa dugu, 2018ko abenduaren 5ean indarrean sartu zena.

Aurrekari historikoei dagokionez, 1992an datu pertsonalen tratamendu automatizatu arautzen zuen Lege Organikoa sortu zen, zeina Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko Lege Organikoarengatik derogatua izan zen, eta azken hau, gaur egun indarrean dagoen Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoarengatik.

Hala ere, Espainia EBeko estatu-kide bat denez, EBren araudia estatu-mailan dagoenaren gainetik dago, eta beraz, hori izango da errespetatu beharrekoa. Gainera, EBren mailako arau batzuk (zuzentarauak) ez dira zuzenean aplikatzen, baizik eta estatu-mailan horien transposizioa edo garapena egin behar da.

Aurretik azaldu dugun bezala, datu babesak hainbat eremu barne-hartzen ditu, besteak beste, komunikazio elektronikoa, zibersegurtasuna, adimen artifiziala... baina eremu hauek nahiko berriak diren gaiei buruzkoak direnez, ez ditugu oso sakonki aztertuko. Beraz, soilik datu babesa eremu orokorrean barne hartzen duen EBren araudiaren Espainia mailako transposizioa edo garapena banan-banan aipatuko dugu.

DBEOri dagokionez, 3/2018 LOK duen indarra edo garrantzia bigarren mailakoa da, hau da, bere zeregina osagarri hutsa da. Beraz, esparru honetan dugun EBren erregelamendu orokorraren irismen orokorrak, nahitaezkoak, aplikagarritasunak

eta zuzeneko eraginkortasunak, 3/2018 Lege Organikoaren konfigurazio-eremua baldintzatzen du⁵².

Lege Organiko honek bi helburu ditu⁵³; Alde batetik, DBEO, zuzenean aplikagarria zaien tratamendu guztietara egokitzea eta osatzea, EBren Zuzenbidearen aplikazio-eremuaren barnean sartzen diren jardueri eragiten dietelako. Eta bestetik, EBren Zuzenbidearen barruan ez dauden jardueren esparruan, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen erabilera arautzea.

2016/680 Zuzentarauari dagokionez, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzko 7/2021 Lege Organikoa da aipatutako EBren araua esparru nazionalean garatzen duena.

2016/680 Zuzentarauari dagokionez, terrorismo-delituak eta delitu larriak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko, bidaiarien izenen erregistroko datuak erabiltzeari buruzko 1/2020 Lege Organikoa da aipatutako EBren araua esparru nazionalean garatzen duena.

⁵² JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael, "El nuevo marco normativo de la Protección...", *op.cit.*, p. 328.

⁵³ RALLO LOMBARTE, Artemi, "El nuevo derecho de protección...", *op.cit.*, p. 65.

3. EUROPAR BATASUNAREN JUSTIZIA AUZITEGIAREN JURISPRUDENTZIA GARRANTZITSUENAK

Datu pertsonalen babeserako lehenengo epaia eman zenetik gaur egunera, asko izan dira esparru honetan Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) ebatzi eta argitaratutako epaiak. Hauek kontuan hartuta, epaien bilduma bat jaso dugu, non auzitegi honek gai espezifikoak aztertzen dituen, funtsezkoa den datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen nondik norakoak, esanahia eta irismena ulertzeko⁵⁴.

Estatu-kideetako jurisdikzio-organoek planteatu dizkioten epaiketa aurreko hainbat gai, hainbat errekurtsio eta estatuko-kideen ez-betetze kasuei buruzko iritzia ematean, EJJAk jurisprudentzia aberatsa garatu du denboran zehar, eta egoera honek nabarmen eragin du arlo honetako arauen garapenean (arau berriak sortuz, indarrean daudenak aldatuz, baliogabetuz, garatuz...).

Illo horretan, gaur egun EBean indarrean dugun DBEOK bere testuan zehar adierazten duen bezala, artikulua asko garatzeko EJJAk hartutako erabaki batzuk jaso eta kontuan hartu dira. Aztertutako kasu guztiak garrantzi handikoak badira ere, horietako batzuek eragin berezia izan dute datu pertsonalen babeserako EBren Zuzenbidearen garapenean.

Gainera, EJJAk emandako epaien ondorioz sortutako jurisprudentziaren aplikazioa EBren lurraldeko estatuko-kideetara mugatzen bada ere, kontuan hartu behar da azken honek emandako ebazpenak eremu geografiko horretatik haratago iristen direla, hau da, beste edozein estatuan inpaktua edo eragina dutela.

Laburbilduz, EJJAk EBren esparruan datu pertsonalen babeserako eskubidearen garapenean izan duen, duen eta izango duen garrantzi nabarmena, bere jurisprudentzia sortzen duten epaien bidez egiaztatzen da.⁵⁵

⁵⁴ SOLANGE MAQUEO RAMIREZ, María, MORENO GONZÁLEZ, Jimena, RECIO GAYO, Miguel, "Protección de datos personales, privacidad y vida privada: la inquietante búsqueda de un equilibrio global necesario", *Revista de Derecho*, Vol. 30 - Nº 1, 2017, p. 89.

⁵⁵ PIÑAR MAÑAS, Jose Luis, RECIO GAYO, Miguel, *El Derecho a la Protección de Datos en la Jurisprudencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea*, Wolters Kluwer (Madrid, 2018), pp. 19-21.

Horregatik, lan honetan Lisboako Erreformaren ostean EBJAk emandako epai nagusienak kontu handiz bildu eta sistematizatu ditugu, datu pertsonalen babeserako eskubidea garatzeko beste zutabe garrantzitsu bat dela gailentzeko.

Nahiz eta epai-zerrenda garrantzitsu bat aztertuko dugun, ez ditugu guzti-guztiak azalduko. Hala ere, azpimarratu nahi dugu, aipatutako epaiez gain, datu pertsonalen babeserako eskubidearen esparruan beste hainbat epai garrantzitsu daudela (besteak beste, “Commissioner of the Garda”, “La Quadrature du net y otros”...).

Epaiak aztertzen hasi aurretik, aurretik adierazi dugun bezala, garbi gelditu behar da datu babesak gaur egun gure egunerokoan ezinbestekoak diren edo bihurtzen ari diren beste hainbat eremu barne hartzen dituela, besteak beste, komunikazio elektronikoa, zibersegurtasuna, adimen artifiziala... Hala ere, azken bi esparru hauek oso berriak direnez, EBJAk emandako epai garrantzitsu gutxi ditugu. Beraz, lan honetan aztertuko ditugun epaiak barne sartzen diren datu babesaren esparruak, eremu orokorra (2016/679 DBEO), alderdi penala (2016/680 Zuzentaraua), bidaiarien PNR datuen erregistroa (2016/681 Zuzentaraua) eta komunikazio elektronikoa dira.

3. a) Eremu Orokorra (2016/679 DBEO)

1. Schrems I (2015)⁵⁶

Kasu honetan, Maximillian Schrems jauna dugu, Irlandan bizi zen Facebook sare-sozialaren erabiltzailea zena. Sare sozial honetan nabigatzean, bere datu pertsonalak transferitzen dira sare-sozial horren Irlandan kokatutako filialetik AEBetako lurraldean dauden zerbitzarietara.

Urte batzuk beranduago, AEBetako informazio-zerbitzuen jarduerak, araudiak eta AEBetako praktikak, agintari publikoen zaintza-jardueren aurrean, herrialde horretara transferitutako datuen babes nahikoa bermatzen ez zutelaren errebelazioen berri izan zenean, Schrems jaunak salaketa bat tarteratu zuen Irlandako agintaritzaren aurrean. Irlandako agintaritzak erreklamazio hori gaitzetsi zuen, Europako Batzordeak “Puerto Seguro” deritzon Erabakiaren esparruan, AEBek transferitutako datu pertsonalen babes-maila egokia bermatzen zutela adieraziz.

⁵⁶ EBJAren C-362/14 Epai, 2015eko urriaren 6koa (*Schrems I*).

LÓPEZ AGUILAR, Juan Fernando, “La protección de datos personales en la más reciente jurisprudencia del TJUE...”, *op.cit.*, pp. 573-575. Artikulu honetan “*Schrems I*” epaiari buruzko azalpena egiten da.

Egoera honen aurrean, Irlandako Auzitegi Gorenak (kasua ezagutzen duen auzitegiak) EBJAri egoerari buruz galdetzeaz gain, ea Europako Batzordearen Erabaki baten existentziak kontroleko agintari nazional bati hirugarren herrialde batek babes-maila egokia bermatzen ez zuela alegatzen zuen salaketa bat ikertzea (eta hala badagokio, salatutako datu-transferentzia etetea) eragozten zion.

Eskaera honen aurrean, hau izan zen EBJAk emandako erantzuna;

Lehenik eta behin, Europako Batzordearen Erabaki baten existentziak ezin zituela EBren Zuzenbidearen arabera agintari nazionalak dituzten kontrol-ahalmen edo -gaitasunak indarrik gabe utzi, ezta mugatu ere.

Gainera, Europako Batzordearen Erabaki baten aurrean egongo bagina ere, eskaera bat aurkeztu zaienean, kontroleko agintari nazionalak, pertsona horren datuak hirugarren herrialde batera tranferitzeak EBren araudian ezarritako eskakizunak betetzen dituela independentzia osoz aztertu behar dutela.

Bigarrenik, Europako Batzordeak, AEBk bere barne-araudiaren edo nazioarteko konpromisoen arabera, EBren araudiaren arabera oinarritzko eskubideen pareko babes-maila bermatzen duela egiaztatu behar zuela adierazi zuen. Eta kasu honetan, Europako Batzordeak ez zuen azterketa hori egin, baizik eta “Puerto Seguro”-ko araubidea aztertzerara mugatu zen.

Hirugarrenik, “Puerto Seguro”-ko araubidea bertara atxikitako AEBetako erakundeei soilik aplikatu daitekeela azpimarratu zuen, eta beraz, AEBetako agintari publikoak araubide horren mende ez zeudela.

Gainera, AEBetako segurtasun nazionalaren, interes publikoaren eta legea betetzearen eskakizunak “Puerto Seguro”-ko araubidearen gaineratik daudela zioen, eta beraz, AEBetako erakundeak eskakizun horiekin gatazkan zeudenean, araubide horrek aurreikusitako babes-arauak mugarik gabe aplikatzeari uztea behartuta zeudela.

Azkenik, Batzordearen Erabakiak agintari nazionalak bere ahalmenak kontrolatzeko eskumena kentzen adierazi zuen, beti ere pertsona batek, Europako Batzordearen “Puerto Seguro” Erabakia, bizitza pribatua eta pertsonen oinarritzko askatasun eta eskubideak babestearekin bateragarria dela aurkaratzen badu.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, EBJAk Europako Batzordearen “Puerto Seguro” Erabakia baliogabetzat jo zuen. Gainera, Irlandako

kontrol-agintaritzak, Schrems jaunaren erreklamazioa arreta guztiarekin aztertzea behartuta zegoen, eta ikerketa amaitzean, AEBetara egindako Facebook sare-sozialeko EBeko erabiltzaileen datuen transferentzia EBren araudiaren arabera bertan behera utzi behar zen ala ez erabaki behar zuen, hirugarren estatu horrek datu pertsonalen babes-maila egokirik eskaintzen ez zuelako.

2. *Schrems II* (2020)⁵⁷

Epai hau, aurretik azaldutako Schrems kasuarekin bat dator, baina kasu honetan urte batzuk beranduago, zehazki 2020ean emandako epaia aztertuko dugu.

Aurreko epaian ikusi dugun bezala, Europako Batzordearen “Puerto Seguro” Erabakia baliogabetzat jo zutenez, Irlandako kontrol-agintaritzak Schrems jaunari, azken honek aurretik tarteratu zuen eta gaitzetsia izan zen erreklamazioa aldatzeko eskatu zion. Erreklamazio “berri” horretan, Schrems jaunak AEBk herrialde horretara transferitzen ziren datuen babes nahikoa eskaintzen ez zuela adierazten jarraitzen zuen. Gainera, gaur egun Europako Batzordearen 2010/87 Erabakian jasotako babes-klausula tipoetan oinarrituta, Facebook Ireland sare-sozialak EBetik AEBetara egindako datu pertsonalen transferentziak, etorkizunera begira etetea edo debekatzea ere eskatu zuen.

Egoera honen aurrean, kontsideratuz Schrems jaunak egindako erreklamazioa Europako Batzordearen 2010/87 Erabakian oinarritzen zela, Irlandako kontrol-agintaritzak Irlandako Auzitegi Gorenean prozesu bat hastea erabaki zuen, EBJAri erabaki horren aplikagarritasuna egokia zen ala ez planteatuz.

Bitartean, Europako Batzordeak 2016/1250 “Escudo de la privacidad” Erabakia hartu zuen, EBren eta AEBren arteko pribatutasunaren ezkutuak emandako babesaren egokitasunari buruzkoa zena.

Irlandako Auzitegi Gorenak, 3 galdera planteatu zizkion EBJAri. Alde batetik, 2010/87 Erabakian jasotako babes-klausula tipoetan oinarritutako datu pertsonalen transferentzietan DBEO aplikatzeko aukera bazegoen. Bestetik, DBEOari dagokionez, ezaugarri horiek dituen transferentzietan eskatzen den babes-maila zein zen. Eta azkenik, kontrol-agintaritzek testuinguru horretan dituzten betebeharrak zeintzuk ziren.

Eskaera honen aurrean, hau izan zen EBJAk emandako erantzuna;

⁵⁷ EBJAren C-311/18 Epaia, 2020ko uztailaren 16koa (*Schrems II*).

Lehenik eta behin, Europako Batzordearen 2010/87 Erabakiaren azterketak, EBren araudiaren arabera, ez zituen agerian utzi haren balioari eragin ziezaiokeen elementurik zegoenik. Aldiz, Europako Batzordearen 2016/1250 “Escudo de la privacidad” Erabakia baliogabea zela adierazi zuen.

Bigarrenik, DBEO estatu-kide batean kokatutako operadore ekonomiko batek hirugarren herrialde batean kokatutako beste operadore ekonomiko bati helburu komertzialekin datuak transferitzean aplikatzen dela azpimarratu zuen. Gainera, transferentzia horietan zehar edo ondoren datu horiek hirugarren herrialde horretako agintariek segurtasun nazionalerako, defentsarako eta estatuaren segurtasunerako erabil zitzaketela, eta tratamendu horrek transferentzia mota hori DBEOren aplikagarritasun-eremutik kanpo gelditzea eragin ezin zuela adierazi zuen.

Hirugarrenik, DBEOn transferentzia horiek burutzeko galdatutako eskakizunak, EBean bermatzen den babes-mailaren baliokideak izan behar zirela. Gainera, babes-maila hori ebaluatzeko, EBean ezarritako datu-esportatzailearen eta hirugarren herrialdean ezarritako datu-hartzailearen artean adostutako akordioaz gain, herrialde horretako sistema juridikoaren elementu egokiak ere kontuan hartu behar direla azaldu zuen.

Laugarrenik, transferentzia horien egokitasuna zein den jasotzen zuen modu egoki batean egindako Europako Batzordearen Erabaki bat ez bazegoen, kontrol-agintaritzak hirugarren herrialde bati datu pertsonalen transferentzia bat etetera edo debekatzera behartuta zeudela azpimarratu zuen, beti ere, hirugarren herrialde horretara datuak transferitzean jasan beharreko datu pertsonalen babesa errespetatzen ez bada edo EBean galdatzen den babesa errespetatzen ez bada.

Azkenik, Europako Batzordearen 2010/87 Erabakiaren eta 2016/1250 “Escudo de la privacidad” Erabakiaren egokitasuna aztertu zuen.

Lehenengoari dagokionez, datuen esportatzaileak eta transferentziaren hartzaileak hirugarren herrialdean babes-maila hori errespetatzen dela alde aurretik egiaztatu behar dutela adierazi zuen. Beraz, egokia dela kontsideratu zuen.

Bigarrenari dagokionez, segurtasun nazionalari, interes publikoari eta AEBetako legea betetzeari buruzko eskakizunen lehentasuna aitortzen zuenez (Europako Batzordearen “Puerto Seguro” Erabakiarekin gertatzen den bezala), EBean galdatzen diren eskakizunekin bat ez datozela adierazi zuen. Beraz, desegokia dela kontsideratu zuen.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, EBJAk Europako Batzordearen 2016/1250 “Escudo de la privacidad” Erabakia baliogabetzat jo zuen, bertan adierazitakoa EBean datu pertsonalen babesari dagokionez galdatzen diren eskakizunekin bat ez zetorrelako. Eta Europako Batzordearen 2010/87 Erabakia berriz, baliozkotzat jo zuen.

3. Google Spain, S.L., Google Inc.⁵⁸

Kasu honetan emandako egoerari dagokionez, edozein nabigatzailek Costeja Gonzálezen izena “Google Search” bilatzailean sartzen bazuen, emaitza gisa, La Vanguardia egunkariaren estekak lortzen ziren. Esteka horietan, higiezinen enkante bat iragatzen zen, Coste González jaunak Gizarte Segurantzari zor zizkion zenbateko batzuk kobratzeko enbargo baten ondorioz antolatu zena.

Egoera honen aurrean, Costeja González jaunak Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean La Vanguardia Ediciones, S.L.-ren eta Google Spain eta Google Inc.-en aurka erreklamazio bat aurkeztu zuen. Erreklamazio honetan, bi eskaera egin zituen;

Alde batetik, La Vanguardia egunkariari bere datu pertsonalak ager ez zitezen, orrialde horiek ezabatzeke edo aldatzeko eskaera, edo datu horiek babesteko bilatzaileak emandako tresnak erabiltzea.

Bestetik, Google Spain edo Google Inc. konpainiei bere datu pertsonalak ezabatzea edo ezkutatzea galdatzeko eskaera, bilaketa-emaitzetan sartzeari uzteko eta La Vanguardia esteki lotuta egoteari uzteko.

DBEAK eskaera honi emandako erantzuna, bi motatakoa izan zen. Lehenengo eskaerari dagokionez (La Vanguardia Ediciones, S.L.), ezestu egin zuen, argitaratzaileak informazio hori legez argitaratu zuela kontsideratuz. Bigarren eskaerari dagokionez (Google Spain eta Google Inc.), baietsi egin zuen, bi konpainia horiei

⁵⁸ EBJAren C-131/12 Epaia, 2014ko maiatzaren 13koa (*Google Spain, S.L., Google Inc.*).

RECIO GAYO, Miguel, *El ejercicio de los derechos de protección de datos y su aplicación práctica*, Wolters Kluwer (Madrid, 2019), pp. 215-240. Liburu honetan “*Google Spain, L.C., Google Inc.*” epaiari buruzko azalpen sakon bat egiten da.

MINERO ALEJANDRE, Gemma, “Presente y futuro de la protección de datos personales. Análisis normativo y jurisprudencial desde una perspectiva nacional y europea”, *Anuario Jurídico y Económico Escurialense*, Nº 50, 2017, pp. 25-36. Artikulu honetan “*Google Spain, L.C., Google Inc.*” epaiari buruzko azalpen sakon bat egiten da.

beren indizeko datuak kentzeko eta etorkizunean datu horiek eskuratzea galarazteko beharrezko neurriak har zitzatela exijituz.

Google Spain eta Google Inc. konpainiek, DBEAk emandako erantzunarekin konforme ez zeudenez, ebazpen horren aurkako errekurtsio bana tarteratu zuten Auzitegi Nazionalaren aurrean. Azken honek, EBJAri gaiaren inguruko hainbat galdera planteatu zizkion, eta hauek izan ziren EBJAk horiei emandako erantzunak;

Lehenik eta behin, bilaketa-motor baten kudeatzaileak datu horiek jaso, atera, erregistratu eta antolatu egiten dituela azaldu zuen. Gainera, datu horiek bere zerbitzarietan gordetzean, erabiltzaileei jakinarazi egiten dizkiela, eta emaitza-zerrenda gisa bertarako sarbidea errazten diela azpimarratu zuen. Eragiketen prozesu hau, tratamendu gisa kalifikatu behar zela adierazi zuen.

Bigarrenik, bilaketa-motorraren kudeatzailea, jarduera horren helburuak eta bitartekoak zehazten dituelako, tratamendu horren arduraduna dela azaldu zuen. Gainera, kudeatzaile horrek, jarduera honek araudiak jasotzen dituen eskakizunak betetzen dituela bermatu behar duela azpimarratu zuen, bizitza pribatuaren errespetua eta datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideak errespetatzeko.

Hirugarrenik, Google Spain Espainiako lurraldean Google Inc. konpainiak duen filial bat dela, eta beraz, EBren araudiaren arabera, establezimendu bat kontsideratzen dela adierazi zuen. Honez gain, datu horien tratamendua estatu-kide batean establezimendua duen (nahiz eta hirugarren estatu batean kokatuta egon) enpresa batek kudeatutako bilaketa-motor baten funtzionamendua ahalbidetzeko egiten denean, tratamendu hori establezimendu horren jardueren esparruan egiten dela azaldu zuen, beti ere establezimendu horren eginkizuna bilaketa-motorraren publizitate-guneak estatu-kide horretan sustatzea eta saltzea bada, azken horrek eskainitako zerbitzua errentagarri egiteko.

Laugarrenik, baldintza jakin batzuetan, nahiz eta orrialde horietan argitaratzea zilegi den, pertsona baten izenetik abiatuta egindako bilaketa baten ondoren lortutako emaitzen zerredatik, pertsona horri buruzko informazioa duten hirugarrenek argitaratutako webgunetarako estekak ezabatu behar direla adierazi zuen. Gainera, zerrendan agertzen diren informazio eta esteka horiek ezabatu egin behar direla azpimarratu zuen, beti ere, denborarekin, hasiera batean zilegi zen datuen

tratamendua EBren araudiarekin bateraezina bihurtzen bada. Hau da, tratatutako helburuen eta igarotako denboraren ikuspegitik, datuak desegokiak edo gehiegizkoak badira, datu horiek ezabatu egin behar direla azaldu zuen.

Azkenik, pertsona horrek berari buruzko informazioa gaur egun bere izenari lotuta egoteari uzteko eskubidea badu, informazio hori duten webguneetako estekak emaitzen zerrenda horretatik kendu behar dela adierazi zuen, beti ere, jendeak bilaketa egitean informazio hori eskuratzeko interesa duela justifikatzen duten arrazoiak existitzen ez badira.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, interneteko bilaketa-motor baten kudeatzailea, hirugarrenek argitaratutako webguneetan agertzen diren datu pertsonalei aplikatzen zaien tratamenduaren arduraduna dela esan dezakegu. Gainera, pertsona hori bilaketa-motorraren kudeatzailearengana zuzenean jo dezake, eta azken horrek eskaera onartzen ez badu, agintari eskudunengana jo dezake esteka horiek emaitzen zerrendatik ken daitezen lortzeko.

4. Google LLC⁵⁹

Kasu honetan, Frantziako Informatika eta Askatasunen Batzorde Nazionalak, esteka-erretiratzea luzapen guztietara hedatzea eskatu zion Google LLC enpresari, baina azken honek uko egin zion eskaera horri, estatu-kideetan bere bilaketa-motorraren bertsioei dagozkien domeinu-izenetatik egindako bilaketen emaitzetatik esteka eztabaidagarriak soilik ezabatuz.

Egoera aztertuta, Frantziako Informatika eta Askatasunen Batzorde Nazionalak 100.000€-ko isuna ezarri zion Google Inc.-i, enpresa horrek estekak kentzeko eskaera aintzat hartu zuenean uko egin ziolako bilaketa-motorraren domeinu-izenaren luzapen guztietatik estekak kentzeari.

Google Inc.-ek isuna ezarri zuen Frantziako Estatuko Kontseiluari ebazpena bertan behera uztea eskatu zion, estekak kentzeko eskubideak esteka eztabaidagarriak bere motorraren domeinu-izen guztietatik muga geografikorik gabe ezabatu behar ez direla kontsideratzen zuelako.

⁵⁹ EBJAren C-507/17 Epaia, 2019ko irailaren 24koa (*Google LLC*).

Egoera honen aurrean, Frantziako Estatuko Kontseiluak EBJAri galdetu zion ea esteka eztabaidagarriak motorraren domeinu-izen guztietatik ezabatu behar ziren, soilik estatu-kide batzuetan ala soilik onuradunak egoitza duen estatu-kidean;

Lehenik eta behin, bilaketa-motor baten kudeatzaileak, pertsona baten izenetik abiatuta egindako bilaketaren ondoren lortutako emaitzen zerrendatik hirugarrenek argitaratutako eta pertsona horri buruzko informazioa duten webguneetarako estekak ezabatu behar dituela adierazi zuen, nahiz eta webgune horietan argitaratzea berez zilegi izan.

Bigarrenik, Google Inc enpresak Frantziako lurraldean duen establezimenduak datu pertsonalen babesaren esparruarekin zerikusia duten jarduera komertzialak eta publizitatekoak egiten zituela azpimarratu zuen. Gainera, Google Inc-en establezimendu frantsesaren jardueren esparruan bilaketa motor horrek datu pertsonalen tratamendu bakarra egiten zuela kontuan hartu behar zela azaldu zuen, bertsio nazionalen artean pasabideak daudelako.

Beraz, egoera hau datu pertsonalak babesteko EBren araudiaren aplikazio-eremuaren barruan dagoela kontsideratu zuen.

Hirugarrenik, gaur egun nonahi egonda, eta bereziki EBren eremutik kanpo egonda, EBean interes-gunea duen pertsona bati buruzko informazioa ematen duen esteka batera sartzeko erraztasuna dela eta, egoera honek pertsona horregan EBren eremuan berehalako eta funtsezko ondorioak sortu ditzake pertsona horregan. Beraz, munduko lotura guztiak kentzeak EBren zuzenbideak lortu nahi duen babes-helburuari bete-betean erantzungo liokela adierazi zuen. Hala ere, hirugarren estatu askok estekak kentzeko eskubidea aurreikusten ez dutela edo beste ikuspegi batetik heltzen diotela zehaztu zuen.

Azkenik, EBren Zuzenbideak bertako eremutik kanpo estekak kentzearen irismenari dagokionez lankidetzatresna edo -mekanismoak aurreikusten ez zituela azpimarratu zuen.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, estekak kentzeko eskaera aintzat hartzen duen bilaketa-motor baten kudeatzailea, EBren Zuzenbidearen arabera, esteka horiek motorraren bertsio guztietatik kentzera behartuta ez dagoela esan dezakegu. Baina EBren estatu-kide guztiei dagozkien

motorraren bertsioetan, EBren Zuzenbideak bilaketa-motor baten kudeatzailea, estekak kentzera eta interesdunaren oinarritzko eskubideak eraginkortasunez babesten direla bermatzeko neurri eraginkorrak hartzera (adibidez, nabigatzaileei esteka horietara sartzea eragozten edo zailtzen dieten neurriak hartzea) behartzen duela esan dezakegu.

5. ***Nowak***⁶⁰

Kasu honetan, Peter Nowak izeneko gizon irlandar bat dugu, kontulari gisa praktiketako jardunaldia jarduten ari zena. Azken honek, kudeaketako kontabilitatearen eta finantza estrategikoen azterketa suspenditu zuenez, erreklamazio bat aurkeztu zuen azterketan lortutako notarekin konforme ez zegoelako, baina eskaera hori atzera bota zuten. Egoera honen aurrean, Nowak jaunak Auditore Publikoen Institutuaren arabera berari eragiten zizkieten datu pertsonal guztiak eskuratzeko eskaera aurkeztu zuen, eta 2010ean, 17 dokumentu bidali zizkieten, baina azterketaren alea bidaltzeari uko eginez, azken ale honetan datu pertsonalik ez zituela iritzita.

Erakundearen erantzuna ikusita, Nowak jaunak, datuak babesteko komisarioaren ebazpenaren aurka egin zuen Irlandako Auzitegi Gorenaren aurrean, ebazpen horren arabera, azteketen aleak datu pertsonalak kontsideratzen ez direlako.

Nowak jaunaren aurkako eskaeraren aurrean, organo jurisdikzionalak EBJAri ea azterketa profesional batean izangai batek emandako idatzizko erantzunak eta azterketa-egileak azken horiei buruz egin ditzakeen oharak datu pertsonalen eremuen barruan sartzen ziren galdetu zion.

Egoera honen aurrean, banan-banan aztertuko dugu EBJAk Irlandako Auzitegi Gorenari emandako erantzuna;

Lehenik eta behin, azterketa profesional batean parte hartzen duen pertsona, modu zuzenean edo zeharkakoan azterketan bertan adierazitako izen-abizen edo bere identifikazio-zenbaki bitartez identifikatu daitekeen pertsona fisikoa dela azaldu zuen.

⁶⁰ EBJAren C-434/16 Epaia, 2017ko abenduaren 20koa (*Nowak*).

RECIO GAYO, Miguel, *El ejercicio de los derechos de protección de datos y...*, *op.cit.*, pp. 241-253. Liburu honetan “*Nowak*” epaiari buruzko azalpen sakon bat egiten da;

MINERO ALEJANDRE, Gemma, “Nuevas tendencias en materia de protección de datos personales. La nueva Ley Orgánica y la jurisprudencia más reciente”, *Anuario Jurídico y Económico Escurialense*, N° 52, 2019, pp. 139-143. Artikulu honetan “*Nowak*” epaiari buruzko azalpen bat egiten da.

Bigarrenik, datu pertsonal terminoaren barruan, informazio oro aipatzen denean, edozien informazio mota sartu daitekeela adierazi zuen, informazio hori objektiboa zein subjektiboa izan, iritzi edo onespren gisa izan, beti ere dagokion pertsonari eragiten badio. Beraz, bertan adierazitakoa pertsona horrekin zerikusia duen informazioa denez, azterketa batean izangai denaren erantzunak bere pertsonarekin zerikusia duten datuak direla kontsideratu zuen.

Azken batean, galderen erantzunetan ezarritakoa, pertsonaren jakinduriaren eta gaitasunen maila, eta batzuetan, gogoeta edo hausnarketarako, bereizketarako eta analisirako gaitasuna ere adierazten duela azaldu zuen. Gainera, galderaren erantzunekin, izangaiaren gaitasun profesionala eta kasuan kasuko lanbidean aritzeko gaitasuna baloratu nahi da.

Beraz, izangaiak azterketan izandako arrakasta edo porrotak, bere interes edo eskubideetan eragin nabarmena izan dezakeela adierazi zuen, nahi duen lanbide edo enpleguan sartzeko aukerak aldatu ditzakelako.

Hirugarrenik, azterketa-egileak edo aztertzaileak bere erantzunen aurrean egindako oharra izangaiari eragiten dizkieten datuak direla azpimarratu zuen. Azken batean, ohar horien edukiak izangaiak emandako erantzunen gainean aztertzaileak duen iritzi edo balorazioak direlako, bereziki, izangaiak gaiaren inguruan dituen ezagutza eta gaitasunen gainekoak.

Azkenik, izangaiak duen datuak eskuratzeko eta zuzentzeko eskubideak azterketako galderak barne hartzen ez dituela azaldu zuen, azken hauek izandako izaeragatik ez direlako izangaiaren datu pertsonalen eremuaren barruan sartzen.

Aipatutako EBJAk emandako erantzun guztiak kontuan hartuta, garbi adierazi dezakegu Peter Nowak jaunak azterketan idatzitako galderen erantzunak eta horien gainean azterketa-egileak edo aztertzaileak egindako oharra, bere datu pertsonalak kontsideratu daitezkeela, eta azterketako galderak berriz, ez.

6. Schwarz⁶¹

Kasu honetan, Michael Schwarz jaunak, bere herriko udaletxean pasaporte bat egiteko eskaera egin zuen, baina dokumentu hori lortzeko beharrezkoak ziren pausu eta prozesua egin nahi izan gabe. Hau da, EBren 2262/2004 Erregelamenduaren arabera,

⁶¹ EBJaren C-291/12 Epaia, 2013ko urriaren 17koa (*Schwarz*).

pasaporte bat segurtasun-neurri sendoak dituen biltegitze-gailu bat izan behar da, zehazki, aurpegiko irudi bat eta bi hatz-marka izan behar ditu barneratuta.

Egoera honen aurrean, Schwarz jaunaren eskaera ezeztatua izan zen, eta Alemaniako hiri bateko administrazio auzitegi baten aurrean errekurso bat tarteratu zuen, aipatutako udaletxe horri Schwarz jaunaren pasaportea erregelamenduan jasotako segurtasun-behar horiek gabe egitea behartzeko, hau da, pasaportea bere hatz-marka gabe egitea behartzeko.

Arazo honen aurrean EBJAk planteatutakoa kontuan hartuta, aipatutako segurtasun-behar horiek (hatz markak hartzea eta pasaportean gordetzea) bizitza pribatua errespetatzeko eta datu pertsonalak babesteko eskubideak urratzen dituen arren, neurri horiek, pasaporteak iruzurrezko erabileraren aurka babesteko helburuak justifikatzen ditu.

Azken batean, segurtasun-behar edo -neurri hauen helburu nagusia, pertsonak EBean legez kanpo sartzea eragozte, eta pasaporteak faltsutzea eta azken hauen iruzurrezko erabilera eragozte da. Honela, nabarmen murrizten da baimendu gabeko pertsonak EBren lurraldean sartzeko baimen okerra izateko arriskua.

Gainera, jakinaren gainean ez dituztela datu pertsonalen babeserako eta intimitaterako eskubideak neurri txikiagoan urratzen dituzten segurtasun-behar edo -neurri eraginkorrik dagoenik jakinaren gainean ez dituztela adierazi zuen EBJAk. Bestalde, hatz-markak jasotzearen segurtasun-neurri honek, pertsona jakin bat leku horretan dagoela egiaztatzeko aukera ematen du, bai ikerketa kriminal baten esparruan, baita pertsona horren zeharkako zaintza egitean ere.

Honetaz aparte, aurretik aipatutako EBren erregelamenduak, zehazki, hatz-markak jasotzearen segurtasun-behar edo -neurri hau pasaportearen egiazkotasuna eta titularraren nortasuna egiaztatzeko soilik erabili ahal izango dela jasotzen duela adierazi zuen.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, hatz-markak pasaportetan jasotzea edo sartzea guztiz zilegia den ekintza dela esan dezakegu, beti ere, pasaporteak iruzurrez erabiltzea eragozteko justifikatuta badaude.

7. Jehovan Todistajat / Tietosuojavaltuutettu⁶²

Kasu honetan, Jehovaren Lekukoen komunitate erlijioso batek aurrera eramandako jarduera baten aurrean gaude. Komunitate honetako kideek, atez-ate joaten dira bisitak eginez, pertsonen datuak edo oharrak jasoz. Bildutako datu horiek, bisitatutako pertsonen izena, helbidea, erlijio-sinesmenei buruzko informazioa, familia-egoerari buruzko informazioa... izan daitezke.

Komunitate erlijioso honetako kideek datu horiekin mapa bat egiten dute, sinesdunak eta praktikatzaileak bereiztuz, eta azken hauen informazioarekin fitxa batzuk sortuz. Fitxa horietan jasotako informazio edo datu pertsonalak, komunitate erlijioso honetako kideek erabiltzen dituzte.

Egoera honen aurrean, Datuak Babesteko Finlandiako Batzordeak, Finlandiako Jehovaren Lekukoen komunitate erlijiosoari bere kideek atez-ate egindako jardueretan datu pertsonalak biltzea edo horiek tratatzea debekatu zion, beti ere datu horiek tratatzeko legezko baldintzak errespetatzen ez baziren.

Finlandiako Administrazioarekiko Auzien Auzitegi Gorenak EBJAri egindako epaiketa aurreko galderaren xedea, ea komunitate erlijioso honek datuen babesari dagokion EBren araudia errespetatu behar duen ala ez da. Izan ere, komunitate erlijioso honetako kideek, atez-ateko predikazio-jarduerak burutzen dituztenean, bisitatutako pertsonen erlijio-orientazioari buruzko informazioa bildu dezaketelako, eta informazio hori pertsonala izateaz ez ezik, informazio sentikorra delako.

Egoera aztertuta, EBJAk emandako azalpen edo erantzunak aztertuko ditugu;

Alde batetik, Jehovaren Lekukoen komunitate erlijiosoko kideek atez-ate burutzen duten predikazio-jarduera datu babeserako EBren araudiko salbuespenen artean sartzen ez dela adierazi zuen. Hau da, aipatutako jarduera hau ez dela araudi hori aplikatu ezin zaion jarduera pertsonal edo etxeko jardueraren eremuan sartzen, komunitate erlijioso bateko kide predikatzaile baten eremu pribatutik kanpo dagoelako.

⁶² EBJAren C-25/17 Epaia, 2019ko uztailaren 10ekoa (*Jehovan Todistajat / Tietosuojavaltuutettu*).

MINERO ALEJANDRE, Gemma, "Nuevas tendencias en materia de protección de datos personales...", *op.cit.*, pp. 143-144. Artikulu honetan "*Jehovan Todistajat / Tietosuojavaltuutettu*" epaiari buruzko azalpena egiten da.

Bestetik, datu pertsonalak babesteko EBren araudia datuen eskuzko tratamenduei soilik aplikatzen zaiela azpimarratu zuen, beti ere datu horiek fitxategi batean sartuta badaude edo fitxategi batean sartzeko badira. Honen aurrean, “fitxategi” kontzeptuan atez-ate aurrera eramandako predikazio-jarduera batean bildutako datu pertsonal guztiak sartzen direla azaldu zuen, datu horiek bisitatutako pertsonen buruzko izenak, helbideak eta bestela informazioa izanda. Honez gain, datu horiek izipide jakin batzuen arabera egituratuta egon behar direla adierazi zuen, beti ere gerorako praktikan datu horiek erraztasunez berreskuratzeke aukera ematen badute. Gainera, datu bilketa hori kontzeptu honen barruan sartzeko, fitxak, katalogo espezifikokoak edo beste bilaketa-sistema batzuk edukitzea beharrezkoa ez dela azpimarratu zuen.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, Jehovahko Lekukoen komunitate erlijiosoaren kideek aurrera eramaten dituzten predikazio-jarduera hauen ondorioz bildutako datuak eta azken hauen tratamenduak, datu pertsonalen babeserako EBren araudia errespetatu beharko duela esan dezakegu.

Gainera, datu pertsonalen babesari buruzko EBren araudiari dagokionez, komunitate erlijioso bat, bere kide predikatzailleekin batera, datu pertsonalen tratamenduaren erantzule dela esan dezakegu, azken hauek atez-ate burutzen dituzten eta komunitateak antolatu, koordinatu eta sustatzen dituen predikazio-jarduerak aurrera eramatean. Hau da, datu pertsonalen babesari dagokionez, Jehovahko Lekukoen komunitate erlijiosoa aipatutako jarduera horren erantzule da.

3. b) Alderdi Penal-Poliziala (2016/680 Zuzentaraua)

8. V.S.⁶³

Kasu honetan, partikular (V. S.) baten aurka aurrera eramandako ikerketa baten aurrean gaude, azken honek, ustez, irabazi-asmoa zuen erakunde kriminal batean parte hartu zuelako, Bulgariako lurraldean delituak modu hitzartuan burutzeko asmoz.

Ikerketa honen ondorioz, Bulgariako poliziak partikular honi bere hatz-markak hartzea, datu fotografikoak jasotzea eta DNA profila egiteko laginak hartzea eskatu zioten, horiek erregistratzeko. Baina partikularra eskaeraren eta datu horiek hartzearen aurka agertu zen.

⁶³ EBJAren C-205/21 Epaia, 2023ko urtarrilaren 26koa (V.S.).

Polizia-agintariek, Bulgariako Zigor Auzitegi Bereziari partikularraren datu genetiko eta biometrikoak nahitaez biltzeko baimena eman zezala eskatu zioten, baina Auzitegi honek Bulgariako araudiaren eta EBren 2016/680 Zuzentarauaren arteko bateragarritasunari buruzko zalantzak zituen.

Egoera honen aurrean, EBJari epaiketa aurreko galdera batzuen bitartez egoera planteatu zion, eta hau izan zen azken honek erantzun zuena;

Lehenik eta behin, Bulgariako Zuzenbide nazionalak polizia-agintariek bere ikerketa-jardueren ondorioetarako, delinkuentziaren aurka borrokatzeko eta ordena publikoa mantentzeko datu biometrikoak eta genetikoak tratatzea baimentzen duela adierazi zuen, beti ere zuzenbide horrek oinarri juridiko argia eta zehatza badu hori baimendu ahal izateko.

Bigarrenik, Bulgariako araudi nazionalak datu sentikorren tratamendua arautzen duten DBEOren xedapenetara jotzen zuen, eta nahiz eta bertan 2016/680 Zuzentarauaren xedapenen edukia errepikatzen den, xedapen horiek baliokideak ez direla kontsideratu zuen. DBEOk datu horien tratamenduaren debekua (salbuespenen zerrenda batekin) ezartzen duela, eta 2016/690 Zuzentarauak berriz datu horien tratamendua behar-beharrezkoa denean soilik onar daitekeela (babes egokiez mugatuta) diola azaldu zuen.

Hirugarrenik, 2016/680 Zuzentarauak eta Giza Eskubideen Europako Gutuna Bulgariako araudi nazionalaren aurkakoak ez direla adierazi zuen. Araudi nazionalari dagokionez, dolozko delitu publiko bat burutzeagatik ikertutako pertsona batek bere datu biometrikoak eta genetikoak erregistratzeko horiek borondatez biltzea laguntzeari uko egiten badio, jurisdikzio penaleko organo eskudunak datu horiek nahitaez biltzeko neurri bat baimendu behar du, ikertzen ari den arau-hauste penala interesdunak aurrera eraman duela adierazi ahal izateko arrazoi funtsaturik badagoen ala ez aztertzeko aukera izan gabe. Egoera hau emango da, beti ere, Bulgariako araudi nazionalak, gerora, ikerketa horren baldintzen kontrol jurisdikzional eraginkorra bermatzen badu.

Laugarrenik, pertsona baten erruduntasuna frogatzeko nahikoa elementu egotea, pertsona horrek arau-hauste hori egin duela uste izateko arrazoi funtsatua dela adierazi zuen. Beraz, kasu horretan 2016/680 Zuzentaruak ez zen Bulgariako araudi nazionalaren aurkakoak ez zela kontsideratu zuen, azken honetan berdina adierazten delako.

Bosgarrenik, Bulgariako araudi nazionalak, dolozko delitu publiko baten ondorioz ikertutako edozein pertsonaren datu biometrikoak eta genetikoak sistematikoki biltzea eta erregistratzea baimentzen du. Honen aurrean, ez da agintaritza eskuduna frogatzera behartzen, ea bilketa hori azken horrekin lortu nahi diren helburu zehatzak bermatzeko ezinbestekoa den eta ea helburu horiek lortzeko interesdunaren eskubide eta askatasunetan hain larriak ez diren esku-sartzeak eragiten dituzten neurrien bidez lortu daitezkeen.

Beraz, 2016/680 Zuzentaraua araudi nazional honen aurka dagela adierazi zuen.

Azkenik, 2016/680 Zuzentaruak datu sentikorren tratamenduekiko (datu biometrikoak eta genetikoak) babes handiagoa bermatu nahi duela azpimarratu zuen, oinarrizko eskubideentzat eta askatasunentzat arrisku handiak eragin baititzakete.

Honen aurrean, dolozko delitu publiko baten ondorioz ikertutako edozein pertsonaren datu biometrikoak eta genetikoak sistematikoki biltzea ezartzen duen Bulgariako araudi nazionala betekizun horren aurkakoa dela kontsideratu zuen. Dolozko delitu publiko bati buruz hitz egitean, izaera generikoa duenez, bertan delitu ezberdin asko sartzen direlako (izaera, larritasun, inguruabar... ezberdinekoak), eta beraz, egoera horrek ikertutako gehien datuak biltzea eragin dezake, oinarrizko eskubideak eta askatasunak urratuz.

Beraz, aipatutako EBJAK emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, polizia-erregistroan inskribatzeko ikertzen diren edozein pertsonaren datu biometriko eta genetikoak sistematikoki biltzea, datu pertsonal sentikorren tratamenduari dagokionez babes handiagoa bermatzeko betekizunaren aurkakoa dela esan dezakegu.

9. Espainiari ezarritako kondena⁶⁴

Aurretik azaldu dugun bezala, EBren zuzentaruak estatu-kideei zuzentzen zaizkie, eta azken hauek tokiko legetara transponitu behar dute Zuzentaraua. Prozesu hori

⁶⁴ EBJAren C-658/19 Epaia, 2021ko otsailaren 25ekoa (*Espainiari ezarritako kondena*).

NAVARRO MEJÍA, Ignacio, "La falta de transposición de una Directiva Europea en materia reservada a ley orgánica. Comentario a la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 25 de febrero de 2021. Asunto C-658/19.", *Revista de las Cortes Generales*, Nº 111, 2021. Artikulu honetan honetan, "*Espainiari ezarritako kondena*" epaiari buruzko azalpen sakona egiten da.

denboran zehar erraza ez denez, printzipioz 2 urte uzten zaizkie estatu-kideei aipatutakoa burutzeko.

Hau azalduta, Espainiak ez zituen arau-hauste penalen prebentzioaren eta detekzioaren esparruan datu pertsonalak babesteko Zuzentarauean (2016/680 Zuzentaraua) ezarritako betebeharrak bete. Hau da, Espainiak ez zituen Zuzentarauearen transposizio-neurri nazionalak hartu, ezta neurri horiek jakinarazi ere.

Egoera honen aurrean, Europako Batzordeak errekerimendu-idazki bat bidali zion Espainiari, Zuzentarauearen transposizioaren neurri horiek jakinarazi ziezazkion. Azken idatzi honek eraginik izan ez zuenez, irizpen arrazoitu bat igorri zion Espainiari 2 hilabeteko epean neurri horiek hartzeko galdatuz.

Espainiaren erantzuna, Zuzentarauearen transposizioa egiteko hartu beharreko neurrien administrazio-prozesua abian zegoela izan zen, bertan momentuan izandako egoera politikoak, Lege Organiko bidez egin beharreko Zuzentarauearen transposizioak prozesua atzeratu zuela arrazoituz.

Hala ere, arrazoi horiek ez ziren nahikoak izan. EBJAk ez zuen gaitzetsitako ez-betetzea justifikatzen utzi, eta hainbat adierazpen eman zituen;

Alde batetik, Espainiak EBren 2016/680 Zuzentaraua transponitzeko hartu beharreko neurriak ez hartzeaz gain, Europako Batzordeari jakinarazi ezta egin ez zizkiola adierazi zuen, eta beraz, transposizio-prozesua burutzeko epea amaitu zen, ez-betetzea baieztatuz.

Bestetik, ez-betetzearen larritasuna eta iraupena dela eta, Espainia oroharreko prezioan 15 milioi euroko zenbatekoa eta egunean 89 mila euroko hertsapen-isuna ordaintzera kondenatzen zuela ebatzi zuen.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, EBJAk oroharreko prezioan 15.000.000€-ko zenbatekoa eta egunean 89.000€-ko hertsapen-isuna ordaintzera kondenatu zuen Espainia, EBren 2016/680 Zuzentaraua bere araudian ez sartzeagatik eta Zuzentarau horren transposizio-neurriak ez jakinarazteagatik.

3. c) Bidaiarien PNR Datuen Erregistroa (2016/681 Zuzentaraua)

10. Ligue Des Droits Humains⁶⁵

Aurretik aztertu dugun bezala, EBren 2016/681 Zuzentarauak, terrorismoaren eta delitu larrien aurkako borrokara bideratua, EBera sartzean edo bertako eremutik irtetean EBren kanpo-hegaldietako bidaiariei buruzko PNR datuak (bidaiarien izenaren erregistroa) sistematikoki tratatzea aurreikusten du.

Dakigunez eta lan honen lehenengo zatian azaldu dugun bezala, EBren zuzentarauak ez dira estatu-kideetan zuzenean aplikatzen, baizik eta estatu-kideek arau bat ateratzen dute zuzentarau horren transposizioa egiteko eta bertan adierazitako helburuak lortzeko.

Kasu honetan, La Ligue Des Droits Humains asoziazioak Belgikako Konstituzio Auzitegiaren aurrean deuseztatzeko errekurtsu bat tarteratu zuen, EBren 2016/681 Zuzentaraua eta PNR datuekin zerikusia duten beste zuzentarau batzuk transponitzen zituen Belgikako arau baten aurka. Asoziazioaren arabera, Belgikako arau nazional horrek EBean bermatzen diren bizitza pribatuaren errespetatua, datu pertsonalen babesa eta pertsonen zirkulazio askea urratzen zituen, hau da, oinarrizko eskubide horiek urratzen zituen.

Alde batetik, PNR datuen zabaltasun handia eta datu horien bilketaren, transferentziaren eta tratamenduaren izaera orokorra kritikatzeko du. Eta bestetik, mugetako kontrolak zeharka berriro ezartzen dituela kritikatzeko du, PNR sistema EBren barneko hegaldietara eta EBren lurralde esparru barruan beste bitarteko batzuen bidez egindako garraioetara hedatzen duelako.

Egoera honen aurrean, Belgikako Auzitegi Konstituzionalak EBJAri bi planteamendu egiten dizkio. Alde batetik, EBren 2016/681 Zuzentarauaren baliozkotasuna. Eta bestetik, aipatutako zuzentarau horren transposizioa egiten duen Belgikako legearen eta EBren Zuzenbidearen arteko bateragarritasuna.

Planteamendu hauek kontuan hartuta, EBJAk emandako erantzunak aztertuko ditugu;

Lehenik eta behin, 2016/681 Zuzentarauak Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 7. (bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatzeko oinarrizko

⁶⁵ EBJAren C-817/19 Epaia, 2022ko ekainaren 21ekoa (*Ligue Des Droits Humains*).

CATALINA BENAVENTE, María Ángeles, *El uso de los datos PNR en el proceso penal*, Aranzadi (Pamplona, 2022). Liburu honetan PNR datuen informazio garrantzitsu asko emateaz ez ezik, "*Ligue Des Droits Humains*" epaiari buruzko azalpena eta informazioa adierazten da.

eskubidea) eta 8. (datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidea) artikuluetan jasotzen diren oinarrizko eskubideetan esku-sartze larriak eragiten dituela adierazi zuen, aire-garraioko zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona guztien datu pertsonalen ebaluazio automatizatua barne hartzen duen zaintza-erregimen jarraitua, ez-selektiboa eta sistematikoa ezartzen duelako. Hala ere, estatu-kideek esku-sartze larri hori interes orokorreko helburuaren garrantziarekin bat datorrela egiaztatuz justifikatu dezaketela azpimarratu zuen.

Bigarrenik, 2016/681 Zuzentarauaren ondorioz egiten den PNR datuen tratamendua delitu terroristen eta delitu larrien aurka borrokatzeko behar-beharrezkoa dena mugatzen dela zehaztu zuen, beti ere interpretazio murriztaile bat eginez.

Gainera, datu horiek, pertsona baten inplikazioaren arrazoizko susmoari sinesgarritasuna ematen dizkioten datuak edo terrorismoaren aurkako borrokan ekarpen aktiboa izan daitekeela pentsatzea ahalbidetzen duten datuak izan behar direla zehazten du.

Hirugarrenik, 2016/681 Zuzentarauaren bitartez ezarritakoa zein kasutan eta zein irizpide jarraituz aplikatu behar den adierazi zuen.

Alde batetik, argi eta garbi identifika daitezkeen eta I. Eranskinean agertzen diren kategorietan mugatzen diren informazioak soilik jaso behar direla azpimarratu zuen, beti ere egindako hegaldiarekin eta kasuan-kasuko bidaiariarekin zerikusia duten informazioak izanda.

Bestetik, terrorismo delituetara eta bidaiarien aireko garraioarekin lotura estua edo objektiboa duten delitu larrietara mugatu behar dela azpimarratu zuen.

Laugarrenik, 2016/681 Zuzentarauaren aplikazioaren balizko hedapenak, behar-beharrezkoa den horretara mugatu behar dela zehaztu zuen, eta honen barnean bi eremu bereiztu zituen;

Alde batetik, estatu-kide batek mehatxu terrorista bati aurre egin behar diola egiaztatzen bada, eta mehatxu hori benetakoa eta egungoa edo aurreikusi daitekeena bada, EBren eremu barruan dauden aire-garraioko datuen tratamendua egin daitekeela adierazi zuen, beti ere, aipatu bezala, behar-beharrezkoa denaren mugak gainditu gabe.

Bestetik, mehatxu terrorista hori existitzen ez bada, EBren eremu barruan dauden aire-garraio guztien datuen tratamendua egin ezin dela adierazi zuen, soilik konexio edo lotura jakin batzuk estaltzen dituzten aire-garraioetara mugatu behar dela.

Bosgarrenik, Bidaiariei buruzko Informazio Unitatea (UIP), bidaiarien izenen erregistro datuen tratamenduaren arduraduna da, eta datu horiek bilatzen ari diren edo alertapean dauden pertsona edo objektuei buruzko datu-baseekin soilik konpara ditzake. Datu-base horiek diskriminatzaileak izan ezin direla eta delitu terroristen edo bidaiarien aireko-garraioari lotutako delitu larrien aurka egiteko soilik erabili behar dituztela adierazi zuen.

Azkenik, 2016/681 Zuzentaraua Belgikako arau nazionalaren aurkakoa dela azpimarratu zuen, hiru arrazoi nabarmen hauen ondorioz;

Alde batetik, Belgikako arau nazionalak bidaiarien izenaren erregistroari dagozkion datuen tratamendua baimentzeko arrazoiak, aurretik aipatu ditugun Zuzentaraan tratamendu hori baimentzeko jasotzen diren arrazoi ezberdinak direlako.

Bestetik, Belgikako arau nazionalak bidaiarien izenaren erregistroari dagozkion datuen 5 urteko kontserbazioa aurreikusten duelako, aire-garraioko bidaiari guztien artean bereizketarik egin gabe. Eta 2016/681 Zuzentarauak berriz, 6 hilabeteetan jartzen du beharrezkoa denaren muga.

Horiez gain, Belgikako arau nazionalak EBren lurralde eremu barnean ematen diren aire-garraioko bidai guztien eta beste bitarteko batzuen bidez egindako garraioen bidaiarien izenaren erregistroari dagozkion datuen transferentziak aurreikusten dituelako.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, oinarrizko eskubideak errespetatzeko, 2016/681 Zuzentarauak eta PNR datuekin zerikusia duten beste zuzentarau batzuek aurreikusitako ahalmenak behar-beharrezkoa dena mugatu behar direla ondorioztatu dezakegu. Eta gainera, benetako eta egungo mehatxu terroristarik ezean, EBren Zuzenbidea Belgikako araudi nazionalaren aurka dagoela esan dezakegu.

3. d) Datu Babesa Komunikazio Elektronikoko arloan

11. Digital Rights Ireland⁶⁶

Kasu honetan, EBren 2006/24 Zuzentarauarekin gertatutako arazo baten aurrean gaude. Zuzentaru honek ezartzen zuenez, komunikazio elektronikoen zerbitzuen hornitzaileek esku artean tratatzen dituzten zirkulazioari eta lokalizazioari buruzko datuak gorde behar zituzten, baita erabiltzailea identifikatzeko beharrezkoak ziren erlacionatutako datuak ere. Honen bitartez, datu horien erabilgarritasuna bermatu nahi zen, delitu larriak prebenitzeko, ikertzeko, detektatzeko eta epaitzeko, hala nola, delinkuentzia antolatua eta terrorismoa.

EBren 2006/24 Zuzentarauaren edukari dagokionez, Irlandako Auzitegi Gorenak eta Austriako Auzitegi Konstituzionalak, egoera honi buruzko hainbat auzi eta errekurtsio ezagutzen zituzten.

Irlandako Auzitegi Gorenari dagokionez, Irlandako Digital Rights sozietatearen eta Irlandako agintarien arteko auzi bat ezagutzen zuen, komunikazio elektronikoko datuak gordetzea adierazten zuen neurri nazionalen legezkotasunari buruzkoa.

Austriako Auzitegi Konstituzionalari dagokionez, hainbat errekurtsio ezagutzen zituen, non 2006/24 Zuzentarauaren transposizioa egiten zuen legearen baliogabetzea eskatzen zen.

Egoera honen aurrean, EBJAk 2006/24 Zuzentaru baliogabetu zuen eta hainbat adierazpen eman zituen erabaki hori motibatuz;

Lehenik eta behin, 2006/24 Zuzentarauaren ondorioz gordetzea galdatzen diren komunikazio elektronikoko datuak hornitzailearen eta erabiltzailearen bizitza pribatuarekin zerikusia duten hainbat informazio adierazten zutela adierazi zuen;

Alde batetik, abonatu batek edo erregistratutako erabiltzaile batek zein pertsonarekin eta nola komunikatu den ezagutu daiteke.

Bestetik, komunikazioaren unea eta leku zehatza ezagutu daiteke.

Honez gain, une jakin batean abonatuak edo erregistratutako erabiltzaileak pertsona jakin batzuekin egiten dituen komunikazioen maiztasuna ezagutu daiteke.

Hau azalduta, adibide batzuk ematen ditu, datu horiek zeintzuk diren eta horien irismena hobeto ulertzeko; adibidez, eguneroko bizitzako ohiturak, bizilekua (iraunkorra

⁶⁶ EBJAren C-293/12 eta C-594/12 Epaia, 2014ko apirilaren 8koa (*Digital Rights Ireland*).

LÓPEZ AGUILAR, Juan Fernando, "La protección de datos personales en la más reciente jurisprudencia del TJUE...", *op.cit.*, pp. 576-577. Artikulu honetan "*Digital Rights Ireland*" epaiari buruzko azalpena egiten da.

edo aldi baterakoa), aurrera eramandako jarduerak, joan-etorriak... Beraz, datu hauen bitartez pertsonen bizitza pribatuari buruzko argibide zehatzak ezagutu daitezkeela azaldu zuen.

Honekin jarraituz, aipatutako datu horiek kontserbatuz eta agintari nazional eskudunei datu horiek eskuratzeko aukera emanez, Zuzentarau honek bizitza pribatua errespetatzeko eta datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubideei dagokionez esku-sartze nabarmen larria egiten dela azpimarratu zuen.

Bigarrenik, 2006/24 Zuzentarauak ezartzen zuen datuen kontserbazioak oinarrizko eskubideen funtsezko edukia urratu ezin duela adierazi zuen. Egia da, datu horien kontserbazioak interes orokorreko helburu bati erantzuten diola, zehazki, segurtasun publikoari eta delikuentzia larriaren aurkako borrokari. Baina egoera honen aurrean EBren legegileak zuzentzaraua indarrean sartzeak, proportzionaltasunaren printzipioaren errepestuak galdatzen dituen mugak gainditzen dituela kontsideratu zuen.

Gainera, zuzentarauak oinarrizko eskubideetan izandako esku-sartze larri hori behar-beharrezkoa dena mugatzen dela bermatzeko behar bezala araututa ez dagoela azaldu zuen.

Hirugarrenik, 2006/24 Zuzentarauak pertsona guztiak, komunikabide elektronikoak eta trafikoari buruzko datuak barne-hartzen dituela adierazi zuen, inongo bereizketarik edo salbuespenik egin gabe. Gainera, agintari nazional eskudunek datu horiek soilik eskuratu ahal izango dituztela bermatzeko, eta datu horiek esku-sartze hori justifikatzeko nahikoa larritzat jo daitezkeen delituak prebenitzeko edo detektatzeko erabili ahal izango dituztela bermatzeko, zuzentarau horrek irizpide objektiborik finkatzen ez zituela azpimarratu zuen.

Azkenik, 2006/24 Zuzentarauak datuak EBren lurraldean gordetzea behartzen ez duenez, babes- eta segurtasun-baldintzak betetzen direla kontrolatzea bermatzen ez duela azaldu zuen. Gainera, zuzentarauak datuak abusu-arriskuetatik modu eraginkorrean babesteko eta datuak legez kontra eskuratzetik eta erabiltzetik babesteko berme nahikorik bermatzen ez duela adierazi zuen.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, EBJAk 2006/24 Zuzentzaraua baliogabetu zuen, azken honek bizitza pribatua errespetatzeko eta datu

pertsonalak babesteko oinarrizko eskubideetan behar-beharrezkoa denera mugatu gabe esku-sartze nabarmen larria egiten zuelako.

12. *Tele2 Sverige*⁶⁷

Kasu honetan, “*Digital Rights Ireland*” epiairekin bat datorren epai bat dugu. EBren 2006/24 Zuzentaraua baliogabetu zenean, Suediako Tele2 Sverige telekomunikazioko enpresak zirkulazioari eta lokalizazioari buruzko datuak gordetzea uztearen eta gordetako datu horiek ezabatzearen intentzioa azpimarratu zuen, nahiz eta Suediako araudi nazionalak datu horien kontserbazio sistematikoa eta jarraitua egitea behartzen zuen. Honez gain, hiru britaniarrek aipatutako datu horiek epe jakin batean kontserbatzea behartzen zuen araudiaren aurkako errekurtso bat ere tarteratu zuten. Egoera honen aurrean, Stockholmeko Administrazioarekiko Auzien Apelazio-Auzitegiak eta Ingalaterra eta Galeseko apelazio-auzitegiak, EBJAri esparru honetan indarrean zeuden araudi nazionalak EBren Zuzenbidearekin bateragarriak ziren ala ez adierazteko eskatu zioten, eta hau izan zen EBJAk emandako erantzuna;

Lehenik eta behin, araudi nazionalako neurri eztabaidagarriak 2006/24 Zuzentaruaren aplikazio-eremuaren barruan zeudela adierazi zuen, eta aurretik azaldutako epaian zuzentarau horren baliogabetzea deklaratu zenez, EBren Zuzenbidea datuen kontserbazio orokorra eta bereizi gabea ezartzen duen araudi nazionalaren aurkako zela azpimarratu zuen.

Bigarrenik, bizitza pribatua errespetatzeko oinarrizko eskubidea babesteko, datu pertsonalak babesteko salbuespenak behar-beharrezkoa denera mugatu behar direla adierazi zuen. Gainera, aurretik ikusi dugun epaian azaldu zuen bezala, datu horien kontserbazioak pertsonen bizitza pribatuaren informazio nabarmena erakutsi dezakete, eta beraz, jarduera hau egitea ahalbidetzen duten araudi nazionalak esku-sartze nabarmen larria eragiten dute bizitza pribatua errespetatzeko eta datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubideetan. Hala ere, esku-sartze larri hori soilik delinkuentzia larriaren aurka borrokatzeko justifikatu daitekeela azaldu zuen, beti ere, aipatu bezala, behar-beharrezkoa denera mugatuz. Beraz, kasu honetan araudi nazional horiek aipatutako datuen kontserbazioa behartzen dutenez, behar-beharrezkoa denaren mugak gainditzen dituztela eta gizarte demokratiko batean justifikatutzat jo ezin direla azpimarratu zuen.

⁶⁷ EBJAren C-203/15 eta C-698/15 Epaia, 2016ko abenduaren 21ekoa (*Tele2 Sverige*).

Azkenik, delinkuentzia larriaren aurka borrokatzeko behar-beharrezkoa dena mugatzen badira, baliozkoak izango dira, baina araudi horiek argiak eta zehatzak izan behar direla adierazi zuen, datuak abusu-arriskuetatik babesteko berme nahikoak aurreikusiz. Gainera, araudi nazionalak, datu horiek EBren lurralde esparruan mantendu behar direla eta kontserbazio-epeak amaitzen direnean ezabatu egin behar direla jaso behar dutela aipatu zuen.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, estatu-kideek komunikazio elektronikoko zerbitzuen hornitzaileei zirkulazioari eta lokalizazioari buruzko datuak gordetzeko betebeharrak orokorrik ezarri ezin dizkietela esan dezakegu. Hala ere, egia da estatu-kideek datu horien kontserbazio selektiboa ezarri dezaketela, baina beti ere, delinkuentzia larriaren aurka borrokatzeko helburu bakarra badago eta behar-beharrezkoa dena mugatzen badira.

13. SpaceNet⁶⁸

Kasu honetan, interneterako sarbide-zerbitzuak eta telefono-zerbitzuak eskaintzen dituzten Alemaniako bi enpresa ditugu, SpaceNet eta Telekom Deutschland. Azken hauek, Alemaniako organo juridikzionalen aurrean Alemaniako telekomunikazioen lege nazionalak ezartzen zuen bezeroen telekomunikazioei buruzko zirkulazio eta lokalizazio datuak gordetzeko obligazioa aurkaratu zuten.

Alemaniako telekomunikazioen lege nazionalari dagokionez, komunikazio elektronikoko zerbitzuen hornitzaileei zirkulazio eta azken erabiltzaileen lokalizazioari buruzko funtsezko datuak hainbat astez modu orokor eta bereizi gabean kontserbatzeko obligazioa ezartzen zien.

Egoera honen aurrean, Alemaniako Administrazioarekiko Auzien Auzitegi Gorenak, EBJAri ea EBren Zuzenbidea Alemaniako telekomunikazioen lege nazionalaren aurkakoa zen galdetu zion. Azken honek aurkeztutako zalantza, Alemaniako telekomunikazioen lege nazionalak aurreikusitako datu horien kontserbazioaren beharrari buruzkoa zen, lege nazionalak horrek datu-kopuru txikiago bati eta kontserbazio-epe laburrago bati erreferentzia egiten ziolako, zehazki, lau edo hamar aste inguru (aurretik aztertu ditugun epaietan azaldutako epe ezberdinak). Beraz, hau izan zen EBJAk zalantza horri emandako erantzuna:

⁶⁸ EBJAren C-793/19 Epaia, 2023ko irailaren 20koa (*SpaceNet*).

Lehenik eta behin, EBren Zuzenbidea zirkulazio eta lokalizazioari buruzko datuen kontserbazio orokorra eta bereizi gabea ezartzen duen araudien aurka dagoela adierazi zuen. Honekin batera, esparru honetan EBren Zuzenbidea aurka ez dagoen hainbat kasu azaldu zituen:

Alde batetik, ez dago zirkulazio eta lokalizazioari buruzko datuen kontserbazio orokorra eta bereizi gabea ahalbidetzen duen araudi nazional baten aurka, baldin eta estatu-kideak benetako, egungo edo aurreikusi daitekeen segurtasun nazionalerako mehatxu larri bati aurre egin behar dion egoera baten aurrean bagaude.

Bestetik, delinkuentzia eta mehatxu larrien kontra borroka egiteko zirkulazio eta lokalizazioari buruzko datuen kontserbazio selektibo baten beharraren aurrean bagaude.

Jarraitzeko, behar-beharrezkoa den aldi zehatz baterako soilik, konexio baten jatorriari esleitutako IP helbideen kontserbazio orokorra eta bereizi gabea (helburu berdinarekin) aurreikusten duten beharraren aurrean bagaude.

Bestalde, komunikazio elektronikoen erabiltzaileen nortasun zibilari buruzko datuen kontserbazio orokorra eta bereizi gabea aurreikusten duten beharraren aurrean bagaude.

Azkenik, komunikazio elektronikoko zerbitzuen hornitzaileei egindako errekerimendu batera jotzea ahalbidetzen duten beharraren aurrean bagaude, aldi jakin batean, zerbitzu-hornitzaile horiek dituzten zirkulazio eta lokalizazioari buruzko datuak azkar gorde ditzaten.

Kasu hauetan, gainera, araudi nazional bakoitzak, datuak gordetzeko baldintza materialak eta prozesalak errespetatu behar dituela, eta kaltetutako pertsonen abusu-arriskuen aurkako berme eraginkorrak izatea bermatu behar duela azpimarratu zuen.

Bigarrenik, datuak kontserbatzeko obligazioari buruz hitz egiten ari denean, Alemaniako telekomunikazioen lege nazionalak datu hauei erreferentzia egiten diela adierazi zuen: komunikazio baten jatorria eta helmuga identifikatzeko beharrekoak diren datuak, komunikazioaren hasiera- eta amaiera-data eta -ordua, SMS bidez jakinarazten bada mezua bidaltzeko eta jasotzeko unea...

Internetarako sarbide-zerbitzua ematean, kontserbatzeko obligazioari dagokionez, datu hauei erreferentzia egiten diela azaldu zuen: erabiltzaileari esleitutako IP helbidea, esleitutako IP helbidetik Internet erabileraren hasiera- eta amaiera-data eta -ordua, mugikorra erabiltzen bada Interneteko konexioaren hasieran erabilitako zelulen izendapena, kokapen geografikoa ezagutzeko aukera ematen duten datuak...

Azkenik, nahiz eta zirkulazio eta lokalizazioari buruzko datuen kontserbazioa lau eta hamar aste ingurukoa den, datu hauek pertsonen bizitza pribatuari buruzko ondorio oso zehatzak ateratzeko aukera eman dezaketeela azpimarratu zuen, hala nola, eguneroko bizitzako ohiturak, bizilekua (iraunkorra edo aldi baterakoa), aurrera eramandako jarduerak, joan-etorriak... hau da, pertsona horien profila ezartzeko aukera ematen dutela kontsideratu zuen.

Beraz, aipatutako EBJAk emandako azalpen guztiak kontuan hartuta, EBren Zuzenbidea zirkulazio eta lokalizazioari buruzko datuen kontserbazio orokorra eta bereizi gabearen aurka dagoela esan dezakegu, salbu segurtasun nazionalerako mehatxu larrien kasu baten aurrean bagaude.

4. ONDORIOAK

Orain arte aztertu dugun datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideari buruzko informazio guztia eta EBJAk emandako epaiak kontuan hartuta, hauek dira lan honetan egindako azterketaren ondorioz atera ditugun ondorio pertsonalak.

LEHENENGOA: Nahiz eta datu pertsonalen babesa nonahikoa edo ubikoa den, gai honen inguruko ezjakintasuna nabarmena da gizartean.

Datu babesa gure eguneroko esparru ezberdin askotan presente dagoela argi dugu, baina hala ere, uste baino eremu gehiago hartzen ditu. Gure egunerokoan gure datu pertsonalen transmisioa etengabe egiten da, eta guk ez diogu jarduera horri garrantzi handirik ematen, baina errealitatean gure funtsezko informazioa da etengabeko transmisioan dagoena, eta ez dugu jakinaren gainean datu horiekin zer egiten den edo datu horiek non bukatzen duten. Badaude informazio edo datu asko ez genituztela inoiz gure datu pertsonal bezala kontsideratuko, baina hala da, eta horren adibide nabarmena EBJAren “*Nowak*” epaian ebatzitakoa, non azterketa batean parte hartzen duen pertsonak idatzitakoa eta horren inguruan aztertzaileak emandako oharrak datu pertsonalak kontsideratzen diren.

Beraz, nire ustez, gaur egun, nahiz eta gizarte guztiz digitalizatu batean bizi garen, eta nahiz eta etengabe gure egunerokoa guztiz errazten duten teknologia berrien ekarpen asko ematen ari diren, honen inguruko, eta zehazki, datu babeserako ezagutza, nabarmen eskasa da gure artean.

BIGARRENA: Oraindik lan asko egiteko dago datu babeserako oinarrizko eskubideari dagokionez.

Nahiz eta egun, datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideak babes-maila handia duela dirudien, errealitatean, oraindik lan asko egiteko dago.

Datu babeserako esparruak, bi esparru nagusi barne hartzen ditu; Alde batetik, datu pertsonalen guztizko edo partziala den automatizatutako tratamendua (bitarteko elektronikoak erabiliz) edo automatizatu gabeko tratamendua (eskuz kudeatzen direnak)⁶⁹ dugu, eta beraz, bi eremu hauen erregulazioa ematen da. Eta bestetik,

⁶⁹ DBEoko 2.1. artikulua.

DBEoko 4. artikuluan jasotzen den “*tratamendua*”ren defenizioa: Datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilita zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea,

azken urte hauetan nabarmen nagusitzen ari diren beste eremu garrantzitsuak ditugu, besteak beste, komunikazio elektronikoa, zibersegurtasuna, adimen artifiziala...

Egia da, komunikazio elektronikoa gure egunerokoan orain dela urte gutxi batzuetatik nahiko presente dugula, Amazonen egindako salerosketa guztiekin edo online plataforma bidez egindako jarduerekin adibidez, eta beraz, esparru honetan bermatzen den gure oinarrizko eskubideen babes nahiko garatua dagoela. Baina zibersegurtasuna eta adimen artifizialari dagokionez (batez ere bigarren hau), oso berriak diren gaiak dira, eta esparru hauek bereganatu ditzaketen dimentsioen hamarren bat baino gutxiago ezagutzen dugu.

Beraz, nahiz eta eremu hauetan araudia egon, argi dago nahikoa ez dela, ezta gutxiago ere. Horregatik, datozen urte hauetan, fenomeno teknologiko berri hauen inguruko ezagutza gehiago barneratzen dugunean eta eremu hauek zein dimentsio hartu dezaketen konturatzen garenean, araudi berriak sortuko dira etengabe, esparru hauen erabiltzaile guztien eremu pribatuaren eta bereziki datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidearen babes nabarmena bermatzeko.

HIRUGARRENA: Oinarrizko eskubideen eremuan, eta zehazki, datu babeserako eremuan EBJAren izaera guztiz zorrotza da.

EBJAK datu babeserako eremuan duen izaera hertsia edo zorrotza da, batez ere epeei dagokionez. Honen adibidea "*Espainiari ezarritako kondena*"-ren epaia izan daiteke. Kasu honetan, aurretik aztertu dugun bezala, Espainiak ez zuen epe barruan Zuzentarau baten transposizioa edo garapen nazionala egin, eta egoera honen aurrean, EBJAK Espainia isun potolo batekin zigortu zuen.

Azken batean, EB sortzen duten estatu-kideen artean araudi komun bat dagoenez, eta estatu-kide guztiek EBetik ezartzen diren arau guztiak errespetatzeko beharra dutenez, estatu-kide batek bete beharrekoa egiten ez badu, portaera desegoki hori zigortu egin behar da, egoera horrek EBean ondorio larriak eragin ditzakelako, estatu-kide guztiak berdinak direlako.

Beraz, nire ustez, EBJAK egoera hauetan izandako izaera zorrotza guztiz egokia da, aipatutako estatu-kideen arteko berdintasuna mantentzeko eta EBren funtzionamendu egokia bermatzeko.

erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

LAUGARRENA: EBJAk emandako epaietan ebatzitako erabakiak eragin nabarmena dute.

Aurretik aztertutako “*Digital Rights Ireland*” epaian ikusi dugun bezala, EBJAk komunikazio elektronikoen esparruan datu pertsonalen babesari dagokion Zuzentarau bat baliogabetu zuen, eta iada EBren estatu-kide batzuek Zuzentarau horren transposizioa edo garapen nazionala eginda zuten. Beraz, egoera honek araudi berri horietan aldaketak egiteko beharra eragin zuen, inongo salbuespenik egon gabe.

Honez gain, EBren estatu-kideetako organo jurisdikzional nazional guztiek, EBren araudiaren interpretazioari buruzko zalantzak edo galderak izatekotan (epaiketa aurreko arazoak), EBJAri horri buruz ebazteko eskatzen diote. Azken batean, argi dago egoera hau EBren eta estatu-kideen artean dagoen hierarkiaren ondorioz ematen dela, baina honelako egoeretan, EBJAk eta azken honek adierazitako erabakien garrantzia nabarmendu behar da.

BOSGARRENA: Bizitza pribatua eta familiakoa errespetatzearen eta datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubideen esku-sartzea onartzen da, beti ere, behar-beharrezkoa eta proportzionala bada.

Eguneroko jarduera askotan, gure bizitza pribatua eta familiakoa errespetatzearen oinarrizko eskubidea eta datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideari dagokionez, esku-sartze asko egiten dira, adibidez gure datu pertsonalak transmititzean. Hala ere, nahiz eta esku-sartze hauek aipatutako gure oinarrizko eskubideak kalte ditzaketen, egoera behar-beharrezko bat eta esku-sartze proportzional bat ematen bada, jarduera hori guztiz justifikatuta geldituko da. Egoera hauen adibide nabarmenak aurretik aztertutako epaietan ikusitako egoerak dira, besteak beste, delitu larrien eta terrorismo delituen aurka borrokatzeko datu pertsonalak transmititzerakoan (“*Ligue Des Droits Humains*”), pasaporteen iruzurrezko erabilera ekiditeko bakoitzaren hatz-markak barnertzean (“*Schwarz*”), komunikazio elektronikoen segurtasun nazionalaren aurkako mehatxu larrietatik babesteko zirkulazioari eta lokalizazioari buruzko datuak gordetzean (“*Digital Rights Ireland*” eta “*Tele2 Sverige*”)...

Beraz, nahiz eta gure egunerokoan hain garrantzitsuak diren oinarrizko eskubideak kaltetu ditzaketen egoerak eman, erabilera guztiz beharrezkoa eta egoki baten aurrean bagaude, esku-sartze horiek onartzen dira.

SEIGARRENA: Datu pertsonalak ezin dira EBren lurralde eremutik kanporako beste edozein estatu batera transmititu, datu horiekiko gutxieneko babes bat bermatu behar da.

EBren lurralde eremuan, oinarrizko eskubideen babes nabarmen bat dago, estatu-kide guztietan ematen dena. Hala ere, batzuetan, EBetik kanpo dauden beste hirugarren estatu batzuekin harremanak egoten dira, normalean harreman komertzialak, beraz, kanpoko estatu horietara datu pertsonalak transmititzean, bertako araudiak EBren lurralde eremuan bermatzen den datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidearen babesa berdina edo gutxieneko babesa egotea bermatu behar du. Kontrakoa gertatuko balitz, EBren biztanleen oinarrizko eskubideak urratuko lirateke, eta beraz, ez zen EBean bermatzen diren oinarrizko eskubide horien errespetua eta azken horien babes egokia bermatuko.

Egoera honen aurrean, EBren jarrera guztiz zorrotza izan behar da, eta hala dela ikus dezakegu “*Schrems I*” epaian, non EBJAk Europako Batzordearen Erabaki bat baliogabetu zuen, AEBk EBren lurralde eremuan datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideari dagokionez galdatzen den gutxieneko babesa edo babes berdina ez bermatzeagatik.

ZAZPIGARRENA: Bilaketa-motor baten kudeatzailea ez dago behartuta pertsona fisiko edo juridiko bati buruzko informazioa motorraren bertsio guztietatik kentzea.

Egoera hau “*Google LLC*” epaian ikusi dezakegu. Honi dagokionez, EBren lurralde eremuan estatu-kide guztiak barneratzen dituen motorraren bertsioetan argitaratzen diren pertsona fisiko edo juridikoei dagozkien datu pertsonalak, honela eskatzen bada, ezabatu egin beharko dira. Gainera, interesdunaren oinarrizko eskubideak eraginkortasunez babestea bermatzeko, neurri eraginkorrak hartu beharko dira esteka horietara sartu ahal izateko zailtasunak izateko.

Nahiz eta EBren lurralde eremuko estatu-kide guztietatik informazio hori ezabatu edo zentzu batean “blokeatu” behar den, ez dago lurralde esparru horretatik kanpoko eremura iristen diren motorraren domeinu-izen guztietatik informazio hori ezabatze beharrik. Egia da, munduko lotura guztiak kentzeak EBren Zuzenbideak lortu nahi duen babes-helburuari erantzungo liokela, baina EBren Zuzenbideak ez du bere lurralde eremutik estekak kentzeko irismenari buruzko lankidetzatresna edo -mekanismoarik aurreikusten eta hirugarren estatu askok ez dute estekak kentzeko eskubidea aurreikusten (edo behintzat beste ikuspegi batetik heltzen diote).

Beraz, nahiz eta motor bertsio guztietatik informazio hori kentzea datu pertsonalen babeserako eskubidearen eremuan oso interesgarria izango litekeen aurrerapena izan, jarduera hori EBren lurralde esparrura soilik mugatzen da.

5. BIBLIOGRAFIA

a. Doktrina

1. AGENCIA ESPAÑOLA DE PROTECCIÓN DE DATOS, “Protección de Datos: Guía para el ciudadano”, 2018, p. 5.
2. AMÉRIGO ALONSO, José, “El marco normativo de la protección de datos en España”, 2020, pp. 21-23.
3. ARAQUE GARCÍA, Alejandro, “La autonomía de la voluntad en la protección de datos y el olvido digital: pieza central, pero, ¿suficiente?”, *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, N°16, 2021, p. 106.
4. ARENAS RAMIRO, Mónica, *El Derecho Fundamental a la Protección de Datos Personales en Europa*, Tirant Lo Blanch (Valencia, 2006), pp. 65-80.
5. BLASI CASAGRAN, Cristina, *La protección de los Derechos Fundamentales en el Tratado de Lisboa*, Quaderns de treball (Barcelona, 2011), pp. 21-22.
6. BUX, Udo, MACIEJEWSKI, Mariusz, “La protección de los datos personales”, *Fichas temáticas sobre la Unión Europea*, Parlamento Europeo, 2023, p. 2.
7. CARAZO LIÉBANA, María José, *El Derecho a la Protección de Datos*, Juruá (Porto, 2021), pp. 20-46.
8. CATALINA BENAVENTE, María Ángeles, *El uso de los datos PNR en el proceso penal*, Aranzadi (Pamplona, 2022).
9. EUROPEAN DATA PROTECTION SUPERVISOR webgunea, https://edps.europa.eu/data-protection/our-work/publications/speeches-articles/eu-data-protection-law-review-directive_en, “EU Data Protection La: the Review of Directive 95/46/EC and the Proposed General Data Protection Regulation”, p. 20.
10. GASCÓN MARCÉN, Ana, “El Reglamento General de Protección de Datos como modelo de las recientes propuestas de legislación digital Europea”, *Cuadernos de Derecho Transnacional*, 2021, p. 210.
11. GIAKOUMOPOULOS Christos, BUTTARELLI, Giovanni, O'FLAHERTY, Michael, “Manual de legislación europea en materia de protección de datos - Edición de 2018”, *Agencia de los Derechos Fundamentales de la UE y Consejo de Europa*, 2019, pp. 19-96.

12. GIL GONZÁLEZ, Elena, *Big Data, Privacidad y Protección de Datos*, Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado (Madrid, 2016), p. 45.
13. HEREDERO CAMPO, M.T., “Directiva (ue) 2018/1972, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 11 de diciembre de 2018, por la que se establece el Código Europeo de las Comunicaciones Electrónicas”, *Ars Iuris Salmanticensis*, Vol. 7, 2019.
14. HERRERA DE LAS HERAS, Ramón, *Aspectos legales de la inteligencia artificial: personalidad jurídica de los robots, protección de datos y responsabilidad civil*, Dykinson (2022).
15. JIMÉNEZ ASENSIO, Rafael, “El nuevo marco normativo de la Protección de Datos Personales: su aplicación a las entidades locales”, 2019, pp. 328-329.
16. JOVE VILLARES, Daniel, “Justicia y Animación de datos personales. Un reto para la digitalización de la Justicia en la era tecnológica.”, *Teoría y Realidad Constitucional*, Nº50, 2022, p. 679.
17. LÓPEZ AGUILAR, Juan Fernando, “La protección de datos personales en la más reciente jurisprudencia del TJUE: Los derechos de la CDFUE como parámetro de validez del derecho Europeo, y su impacto en la relación transatlántica UE-EEUU”, *Teoría y Realidad Constitucional*, Nº 39, 2017, pp. 559-577.
18. MINERO ALEJANDRE, Gemma, “Nuevas tendencias en materia de protección de datos personales. La nueva Ley Orgánica y la jurisprudencia más reciente”, *Anuario Jurídico y Económico Escorialense*, Nº 52, 2019, pp. 139-145.
19. MINERO ALEJANDRE, Gemma, “Presente y futuro de la protección de datos personales. Análisis normativo y jurisprudencial desde una perspectiva nacional y europea”, *Anuario Jurídico y Económico Escorialense*, Nº 50, 2017, pp. 25-36.
20. MIRASHI, Eltjon, *Tratamiento procesal del cibercrimen y diligencias de investigación tecnológica*, Aranzadi, (Pamplona, 2023).
21. MOLINA HERMOSILLA, Olimpia, “Inteligencia Artificial, Big Data y derecho a la protección de datos de las personas trabajadoras”, *Estudios Doctrinales*, Nº 6, 2023, p. 101.

22. NAVARRO MEJÍA, Ignacio, “La falta de transposición de una Directiva Europea en materia reservada a ley orgánica. Comentario a la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea de 25 de febrero de 2021. Asunto C-658/19.”, *Revista de las Cortes Generales*, Nº 111, 2021.
23. PARDO FALCÓN, Javier, “Comentarios a la Constitución Española”, Boletín Oficial del Estado, BOE, Tribunal Constitucional, Wolters Kluwer y Ministerio de Justicia, 2018, Tomo I, p. 562.
24. PASCUAL HUERTA, Pablo, “La génesis del derecho fundamental a la protección de datos personales”, Madrid, 2017, p. 57.
25. PÉREZ-LUÑO ROBLEDO, Enrique César, “La nueva normativa Europea para la Protección de los Datos Personales”, 2019, pp. 216-235.
26. PIÑAR MAÑAS, Jose Luis, RECIO GAYO, Miguel, *El Derecho a la Protección de Datos en la Jurisprudencia del Tribunal de Justicia de la Unión Europea*, Wolters Kluwer (Madrid, 2018), pp. 19-21.
27. PIÑAR MAÑAS, Jose Luis, *Reglamento General de Protección de Datos, hacia un nuevo modelo Europeo de privacidad*, Reus (Madrid, 2016).
28. RALLO LOMBARTE, Artemi, “El nuevo derecho de protección de datos”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, Nº116, 2019, pp. 50-65.
29. RALLO LOMBARTE, Artemi, “Hacia un nuevo sistema Europeo de protección de datos: las claves de la reforma”, *Revista de Derecho Político*, Nº85, 2012, pp. 25-28.
30. RECIO GAYO, Miguel, *El ejercicio de los derechos de protección de datos y su aplicación práctica*, Wolters Kluwer (Madrid, 2019), pp. 215-253.
31. RODOTÀ, Stefano, “La conservación de los datos de tráfico en las comunicaciones electrónicas”, *Revista de Internet, Derecho y Política*, 2006.
32. RUIZ MIGUEL, Carlos, “El derecho a la protección de datos personales en la Carta de derechos de la Unión Europea: Análisis Crítico”, 2007, p. 8.
33. SOLANGE MAQUEO RAMIREZ, María, MORENO GONZÁLEZ, Jimena, RECIO GAYO, Miguel, “Protección de datos personales, privacidad y vida privada: la inquietante búsqueda de un equilibrio global necesario”, *Revista de Derecho*, Vol. 30 - Nº 1, 2017, p. 89.

34. TERRÓN SANTOS, Daniel, DOMÍNGUEZ ÁLVAREZ, José Luis, *Nueva Regulación de la Protección de Datos y su perspectiva digital*, Comares (Granada, 2019), pp. 3-11.

b. Araudia eta Jurisprudentzia

i. EB

1. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO), 2.1. eta 4. artikulak.
2. EBJAren C-131/12 Epaia, 2014ko maiatzaren 13koa (*Google Spain, S.L., Google Inc.*).
3. EBJAren C-203/15 eta C-698/15 Epaia, 2016ko abenduaren 21ekoa (*Tele2 Sverige*).
4. EBJAren C-205/21 Epaia, 2023ko urtarrilaren 26koa (V.S.).
5. EBJAren C-25/17 Epaia, 2019ko uztailaren 10ekoa (*Jehovan Todistajat / Tietosuojavaltuutettu*).
6. EBJAren C-291/12 Epaia, 2013ko urriaren 17koa (*Schwarz*).
7. EBJAren C-293/12 eta C-594/12 Epaia, 2014ko apirilaren 8koa (*Digital Rights Ireland*).
8. EBJAren C-311/18 Epaia, 2020ko uztailaren 16koa (*Schrems II*).
9. EBJAren C-362/14 Epaia, 2015eko urriaren 6koa (*Schrems I*).
10. EBJAren C-434/16 Epaia, 2017ko abenduaren 20koa (*Nowak*).
11. EBJAren C-507/17 Epaia, 2019ko irailaren 24koa (*Google LLC*).
12. EBJAren C-658/19 Epaia, 2021ko otsailaren 25ekoa (*Espainiari ezarritako kondena*).
13. EBJAren C-793/19 Epaia, 2023ko irailaren 20koa (*SpaceNet*).
14. EBJAren C-817/19 Epaia, 2022ko ekainaren 21ekoa (*Ligue Des Droits Humains*).

15. Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Trataturia (TFUE), 16. Artikulua.
16. Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Trataturia (TFUE), 288. Artikulua.
17. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, 8. Artikulua.
18. Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena (EBOEG), 8. Artikulua.

ii. Espainia

1. Auzitegi Konstituzionalaren 254/1993 Epaia, 6. OJ.
2. Auzitegi Konstituzionalaren 290/2000 Epaia, 7. OJ.
3. Auzitegi Konstituzionalaren 292/2000 Epaia, 5. eta 6. OJ.
4. Espainiako Konstituzioa (EK), 18.4. Artikulua.